

Jabekuntza elebiduna eta kode-bereizketa: subjektu eta objektu markak

Andoni Barreña
Salamanca Unibertsitatea

Margareta Almgren
EHU

Ikerketa honen bidez euskaraz eta gaztelaniaz aldi berean jabetu den haur elebidun baten aho ekoizpenaren azterketa burutu dute egileek. Arakaturiko aldia haurraren 1;07 adinetik 3;00 adinera luzatu da. Arakaturiko arloa bi hizkuntzetan subjektuen eta objektuen markakera izan da, kontuan izanik euskaraz aditz iragankorren subjektuak (-k marka) aditz iragangaitzen subjektuetatik (-Ø) bereizten direla eta gaztelaniaz, ostera, subjektuak ez direla morfologikoki bereizten. Ikerketaren helburua bi hizkuntza aldi berean ikasten duten haur elebidunek morfologia-ezaugarriak eta egitura sintaktikoak erabiltzen hasten direnean gramatika sistema biak bereizita garatzen dituztela erakustea da. Horretarako, haur elebidunaren datuez gain, adin bereko euskal zein gaztelaniadun elebakarren datuak ere erabili dira.

During the present investigation, the authors have analysed the oral productions in Basque and Spanish of a bilingual child acquiring both languages simultaneously. The analysis in question covers the period from 1;06 to 3;00 years of age. The linguistic units referred to are markings of subjects and objects in both languages, taking into consideration that in Basque subjects of transitive verbs are differentiated from these of intransitive verbs, whereas in Spanish there is no such morphological differentiation. The aim of the investigation is to show that children who acquire two languages simultaneously from the earliest age develop the two grammar systems independently from the moment morphology and syntax appear. In addition to the data from the bilingual child, data from Basque and Spanish-speaking monolingual children of the same age have been used as a contrast.

0. Sarrera

Ikerketa honen helburua zera da*: bi hizkuntza aldi berean ikasten duten haur elebidunek morfologia-ezaugarriak eta egitura sintaktikoak erabiltzen hasten direnean gramatika sistema biak bereizita garatzen dituztela erakustea. Ikerlan honetan aurkeztuko ditugun datuak, beraz, hizkuntza bi jaiotzatik era orekatuan entzun dituzten haur elebidunek hizkuntza-garapenean gauzatzen duten hizkuntza-kodeen bereizketa goiztiarra erakutsiko digute.

Hizkuntza bi batera ikasten duten haur elebidun goiztiarren gramatika-sistemaren garapenari buruz hipotesi kontrajarriak erakutsi dituzte ikerlariak. Batetik, badira garapenaren hasieran gramatika-sistemaren bereizketarik ez dela gertatzen diotenak. Ildo honetatik Volterra eta Taeschner (1978) eta Taeschner (1983) ikerlariak, italiara eta alemanera batera ikasi duten haurrak aztertutik, gramatika-ezaugarriak erabiltzen hasten direnean garatzen diharduten hizkuntza bietan arau sintaktiko berberak darabiltzatela uste dute. Hasierako aldi honen ostean, ikerlari hauen ustez, hizkuntza bereizketa gertatzen da, baina nahasketa-aldia ezagutu ondoren. Antzeko iritziari eusten diote Redlinger eta Park (1980) ikerlariak, 2,00 eta 2,08 arteko adina duten haur elebidunen ekoizpena arakaturik. Hauen ustez, hizkuntza-kodeen bereizketa apurka-apurka gertatzen da jabekuntza elebidunaren garapenean, beharrezko nahasketa-aldiaren ondoren. Vila eta Cortés (1991) ikerlariak, gaztelania eta katalana aldi berean ikasi duten haurren ekoizpena aztertutik, ez dute baztertzen hizkuntza-kode bakarraren aldia, izatekotan oso laburra eta bereizketaren ataria dela dioten arren. Edozelan ere, eurek aztertu dituzten datuetan halako aldirik ez dutela aurkitu ere badiote.

Bestetik, beste zenbait ikerlarik hasiera-hasierako hizkuntza-bereizketari eusten diote, ordea. Bowerman (1973), Padilla eta Liebman (1975), Padilla eta Lindholm (1978), Slobin (1985), De Houwer (1987, 1991), eta abar bat datoz iritzi honekin. Meisel-ek (1989), esate baterako, frantsesa eta alemanera batera ikasi duten haur elebidunen ekoizpena arakaturik, haurrak oso gazte-gaztetatik gramatika-sistema biak bereizteko gai direla dio. Meisel-ek (1994), Idiazabalek (1995) eta Barreñak (1997), haur euskaldun gaztelaniadun elebidunen ekoizpenak aztertutik –lehenak ezeztapena, bigarrenak izen-sintagmaren determinazioa eta hirugarrenak izen-sintagmaren determinazioa eta egitura–, bereizketaren hipotesia baieztatu dute. Meisel eta Mahlau (1988) eta Meisel (1989) hizkuntzalariek elebitasunaren jabekuntzaren arloan lau kontzeptu bereiztea proposatzen dute, eurentzat ezberdinak baitira pragmatikari eta gramatikari dagozkien fenomenoak. *Kode-aldaketa* eta *kode-nahasketa* kontzeptuak, horrela, pragmatikaren arlokoak lirateke. *Kode-aldaketak* hiztun elebidunek elkarrizketan zehar hizkuntzaz aldatzeko daukaten gaitasuna adierazten du. *Kode-nahasketak*, ostera, hizkuntza bat erabiliarik bigarren hizkuntzaren esaldiak eta hitzak tartekatzearen fenomeno mugatzen du. *Hizkuntza-bereizketa* eta *hizkuntza-bateraketa*, aitzitik, gramatikaren arloko fenomenoak lirateke. Hizkuntzaren jabekuntza, besteak beste, gramatikaren arau-sistemaren baitaratzea da, eta ikuspegi honetatik, *bereizketa* fenomeno, jabekun-

*. Ikerlan honen lehen bertsioa Istanbulen eraturiko *VIIth International Congress for the Study of the Child Language* biltzarrean *Bilingual Acquisition: One System or Two?* izenarekin aurkeztu genuen. Eskerrak eman nahi dizkiegu Xabier Artiagoitia, Andolin Eguzkitza, María José Ezeizabarrena, Jesús Fernández, Itziar Idiazabal eta Juanjo Zubiriri egin dizkiguten oharrengatik.

tza elebidunean, gramatika bi beregain ikastea da, elebkarrek lortzen duten gramatika-gaitasun edo maila erdietsiz hizkuntza bakoitzean. *Bateraketak*, aldiz, alderantzizko prozedura adierazten du. Fenomeno honen arabera haur elebidunek, gramatikaren jabekuntzaren garapenean zehar, aldi batean behintzat, hizkuntza bietan erabiliko luketen sistema bakarra eraikiko lukete, bateko zein besteko elementuak harturik. *Bateraketak*, luzaroan iraunez gero, arazoak eta kalteak ekar diezazkieke haur elebidunei.

Ikerlan honetan euskara eta gaztelania batera ikasten diharduen haur baten gramatika arloko *bereizketa/bateraketa* fenomenoaren gauzatzeari begiratu gura diogu.

1. Ergatibitatea eta akusatibitatea euskaraz eta gaztelaniaz

Gauza jakina da euskarak eta gaztelaniak, azken mendeetan elkarren ondoan elkarrekin harremanetan izan arren, tipologia-bereizketa handia gordetzen dutela.

Hauetariko bat oinarrizko harreman sintaktikoak markatzeko era ezberdina da: S (subjektu iragangaitzak), A (subjektu iragankorrek) eta O (osagarriak) (Plank 1979). Dixon (1994) hizkuntzalariari jarraiturik, hizkuntzek bi bide nagusi jarraitzen dituzte oinarrizko harreman sintaktikoak markatzean, ergatibitatearena edo akusatibitatearena. Hizkuntza akusatiboek subjektu iragangaitzak zein subjektu iragankorrek nominatiboaren bidez markatzen dituzte eta osagarriak akusatiboaren bidez; hizkuntza ergatiboek, ostera, subjektu iragangaitzak zein osagarriak absolutiboaren bidez markatzen dituzte eta subjektu iragankorrek ergatiboaren bidez (1. taula).

1. Taula. Oinarrizko erlazio sintaktikoen markakera

	A (subjektu iragank.)	S (subjektu iragang.)	O (objektuak)
hizkuntza akusatiboak	<i>nominatiboa</i>	<i>nominatiboa</i>	<i>akusatiboa</i>
hizkuntza ergatiboak	<i>ergatiboa</i>	<i>absolutiboa</i>	<i>absolutiboa</i>

Euskara morfologikoki ergatiboa da (Levin 1983, Eguzkitza 1986, Ortiz de Urbina 1988). Subjektu iragangaitzek eta osagarriek kasu bera hartzen dute: absolutiboa, $-\emptyset$ marka alegia (1-3). Subjektu iragankorrek, ordea, kasu ergatiboa hartzen dute, $-k$ hain zuzen (1). Fenomeno arrunta izaten da hizkuntza ergatiboen artean absolutiboa kasu ez-markatua izatea eta ergatiboa, aldiz, kasu markatua.

- (1) gizon-a-k txakurr-a- \emptyset ekarri d-u
- (2) gizon-a- \emptyset etorri d-a
- (3) txakurr-a- \emptyset etorri d-a

Hizkuntza ergatibo askotan ez bezalaxe (Dixon 1994), euskaraz ergatibitatea izen-kategoria guztietan markatzen da beti. Ez du, arlo honetan, euskararen markakera ergatiboak etenik ezagutzen.

Alabaina, euskararen ergatibitatea argumentuetan ez ezik, aditzean ere ikus daiteke. Aditz-komuntzaduran, orainaldiko formetan behintzat, subjektu iragangaitzak zein osagarriak adierazteko aurrizki beraiek darabiltzagu (4-5); subjektu

iragankorrak berriz, atzizkien bidez adierazten ditugu (5-6). Argi dagoena zera da: argumentuetan egiten den bereizketari, subjektu iragangaitzak eta osagarriak batetik eta subjektu iragankorrak bestetik, aditz-komunztaduran ere eusten zaiola¹.

- | | | | | |
|-----|---------|----------|---------|----------------|
| (4) | n-a-tor | | d-a-tor | |
| | S1s | | S3s | |
| (5) | ekarri | n-a-u-zu | ekarri | d-u-ø/d-it-u-ø |
| | | O1s A2s | | O3s A3s |
| (6) | ekarri | d-i-o-t | ekarri | d-i-zki-gu-ø |
| | | A1s | | A3s |

Bada hizkuntza ergatiboetan hedaturik dagoen fenomeno bat, ergatibitatearen markakera-etena², alegia (Dixon 1994). Etenen bat duten hizkuntza ergatiboek maila batean markakera ergatiboa baztertzen dute markakera akusatiboa hartzeko. Horrela, esate baterako, *georgierak*, *svanarak* eta *mingreliarak*, Kaukasoko hizkuntza kartveliarrek, 'aorist' deritzon aditzaldian baino ez dute kasu-markakera ergatiboa, orainaldian kasu-markakera akusatiboa baitute (Boeder 1979); Australiako *ngawun* hizkuntzak (Blake 1979) izenordainak akusatiboki markatzen dituen arren, gainerantzeko izen guztiak ergatiboki markatzen ditu. Ergatibitateari buruzko ikerketa askotan euskarak markakera ergatiboan ez duela etenik esaten den arren (Dixon 1994), badirudi iraganeko zenbait aditz-formetan etenen antzeko fenomenoak ikus dezakegula. Iraganeko aditz-formetan aditz-komunztadura adierazteko bi bide ikus daitezke. Batetik, ohiko bide ergatiboa, subjektu iragangaitzak eta osagarriak aurrizkien bidez adierazten direlarik eta subjektu iragankorrak atzizkien bidez. Markakera ergatibo hau osagarria 1. edo 2. pertsona denean ikus dezakegu. Bestetik, era akusatiboa, subjektu iragangaitzak eta subjektu iragankorrak morfema berez adierazten direnean. Markakera akusatibo hau osagarria 3. pertsona denean ikus dezakegu. Iraganeko aditz-formetan, osagarria 3. pertsona denean, adibidez NOR-NORI-NORK motako adizki guztietan, subjektu iragankorrak aurrizkien bidez adierazten dira, eta zenbait pertsonatan aurrizki hau orainaldiko formetan subjektu iragangaitzak eta osagarriak adierazteko erabiltzen den berbera da gainera (4, 5 eta 7).

- | | | |
|-----|--------|---------|
| (7) | ekarri | n-i-o-n |
| | | A1s |

Gaztelaniaz, ordea, subjektu iragangaitzek eta subjektu iragankorrek kasu berbera hartzen dute, nominatiboa (8-9); osagarriek, berriz, akusatiboa (8). Gaztelaniaz, hizkuntza akusatibo askotan bezala, nominatiboa kasu ez-markatua da eta akusatiboa kasu markatua (Hernanz y Brucart 1987, Demonte 1989, Fernández y Anula 1995).

- | | | | |
|-----|---------------|-----------------|--------------------------------|
| (8) | un hombre | ve | el árbol |
| | gizon bat-nom | ikusi-A3s | zuhaitza-akus (SAO hurrenkera) |
| | gizon batek | zuhaitza dakusa | |

1. Adibideetan erabiliko ditugun laburdurak honakoak dira: O (objektu zuzena), A (subjektu iragankorra), S (subjektu iragangaitza), I (zehir objektua), s (singularra), pl (plurala), 1 (1. pertsona), 2 (2. pertsona), 3 (3. pertsona), nom(inatiboa), akus(atiboa), eta abar.

2. *Etena* hitza, *split* fenomenoak adierazteko darabilgu.

- (9) el árbol crece
 zuhaitza-nom hazi-S3s
 zuhaitza hazi egiten da

Gaztelaniaz batzuetan osagarri zuzena *a* preposizioaren bidez markatzen den arren (10) (Pensado 1995, Laca 1995, Kliffer 1995), sarritan hurrenkera sintaktikoak ematen dio kasua argumentuari. Horrela gertatzen da, esate baterako, SAO (8) hurrenkeran.

Aditz-komuntadura subjektuak atzizkien bidez gauzatzen du (10). Alabaina, klitiko-sistemaren bidez osagarri zuzenak eta zeharkakoak ere adieraz daitezke aditz-multzoan (10-11).

- (10) el amigo trae un pájaro a Maria
 laguna-nom ekarri-A3s txoria-akus Maria-dat
 lagunak Mariari txoria dakarkio

- (11) (el amigo) se lo trae
 (laguna-nom) l3s O3s ekarri-A3s
 badakarkio

Edozelan ere, aipagarria iruditzen zaigu euskaraz hainbat aditz ezergatibok ere (Levin 1983) subjektuaren markakera ergatiboa eskatzen dutela argumentuan eta subjektu iragankorrek adierazteko erabiltzen diren atzizki berberak aditz-flexioan (12). Aditz ezergatiboak, argumentu bakarra dutenez, iragangaitzak dira, nahiz euskarazko gramatika tradizioaletan iragankortzat jo.

- (12) gu-k jolastu d-u-gu
 S1pl S1pl

2. Metodologia

Aurkeztuko ditugun datuak haur bik ekoitzirikoak dira, elebakarra bata eta gaztelania-euskara elebiduna bestea. Haur bien jarraipenak Euskal Herriko Unibertsitateko HEGEHJ³ ikerketa-taldeak eta Hanburgeko Unibertsitateko BUSDE⁴ ikerketa-taldeak bildurikoak dira. Elkarrekin gauzaturiko ikerketa-proiektu longitudinal honetan lau haurren ekoizpena bildu zen, hizkuntza bakoitzean 30/40 minutuko bideo-grabaketak hamabostero egin zirelarik.

Bideo-grabaketak etxeko giroan egin ziren, saioetan gurasoetariko batek parte hartzen zuelarik. Haur elebidunaren bilketan euskarazko grabaketetan amak hitz egin eta jolasten zuen semeagaz, aitak, gaztelaniaduna izanik, erdarazkoetan egiten zuelarik. Haur elebakarrak, lau urte izan arte, euskara baino ez zuen entzun bere inguruan. Grabaketa guztiek berezko giroa islatzen dute, partaideek eguneroko jolas eta ekintzetan dihardutelarik.

3. *Haur Euskaldun Gaztelaniadun Elebidunen Hizkuntza Jabekuntza* ikerketa-taldea Itziar Idiazabal irakasleak zuzendurikoa da.

4. *Baskisch und Spanish: Doppelter Erstspracherwerb - Euskara eta Gaztelania: Bi Lehen Hizkuntzen Jabekuntza* ikerketa-taldea Jürgen Meisel irakasleak zuzendurikoa da.

Guk aztertuko ditugun datuak hurrek 1;06 eta 3;00 adina duten bitartekoak dira. Haur elebidunaren euskarazko 27 saio eta gaztelaniazko 25 eta haur elebakarraren euskarazko 26 dira, guztira, azertu ditugunak. Haur elebidunaren saioen EBBL neurriak³, haurraren hizkuntza-maila neurtzen dutenak, 1,03 baliotik 4,40 baliora doaz euskarazkoetan eta 1,17tik 4,12ra gaztelaniazkoetan; elebakarrarenak, ostera, 1,12tik 4,21ra. Orohar, beraz, haur biek antzeko garapena izan zutela euskaraz, eta elebidunak berak bereganatu zituen hizkuntza bietan ere antzeko garapena izan zuela esan dezakegu.

2. Taula. EBBL neurriak arakaturiko haurren garapenetan

Elebiduna				Elebakarra	
Euskara		Gaztelania		Euskara	
Adina	EBBLa	Adina	EBBLa	Adina	EBBLa
				1;05	1,12
1;06	1,02			1;06	1,14
1;07	1,08 eta 1,10	1;07	1,17 eta 1,40	1;07	1,23
				1;08	1,41
1;09	1,35 eta 1,44	1;09	1,50 eta 1,37		
1;10	1,71 eta 1,82	1;10	1,92	1;10	1,38
1;11	1,96	1;11	1,98	1;11	1,75
2;00	2,53 eta 2,13	2;00	2,46 eta 2,03	2;00	1,77 eta 1,93
2;01	1,97	2;01	2,84	2;01	1,94
2;02	2,41	2;02	2,93	2;02	2,28
2;03	2,76	2;03	3,08 eta 3,10	2;03	2,36
2;04	3,38 eta 3,95	2;04	3,02 eta 3,67	2;04	2,45 eta 3,34
2;05	3,17 eta 3,12	2;05	3,05	2;05	3,23 eta 3,40
2;06	2,99	2;06	3,08 eta 3,17	2;06	3,79 eta 3,23
2;07	2,96	2;07	3,56	2;07	3,40
2;08	3,41	2;08	3,28 eta 3,55	2;08	4,12 eta 3,97
2;09	3,66			2;09	4,64
2;10	4,24 eta 4,11	2;10	4,47 eta 4,11	2;10	4,14 eta 4,35
2;11	3,82 eta 3,41	2;11	3,95 eta 4,23	2;11	3,89
3;00	4,40	3;00	4,12	3;00	4,16 eta 4,21

Lanean zehar erakutsiko ditugun adibideak euskara estandarrean jarriko ditugu, haur biek bizkaiera ikasi duten arren. Aldaketa hau fonetikaren arloari dagokio, inola ez morfologiari.

5. EBBL (Esaldiaren Batz Besteko Luzera) neurria morfosintaxiaren garapena neurtzeko era da eta hizkuntzaren garapenean lorturiko mailaren adierazletzat hartu izan da. Heldutasun-neurketa hau grabaketa bakoitzean ekoitziriko lehen ehun esaldietako hitzak eta morfemak zenbatuz egiten da, Brown-ek (1973) jarriko irizpide orokorrak jarraiturik. Neurketa honen egokitzapena euskarara eta gaztelaniara egitean, Idiazabalen (1991) eta Siguán, Colomina eta Vila-ren (1990) proposamenak jarraitu ditugu.

Bestalde, haur gaztelau elebkarrek garatzen duten gramatika aztertzeo Hernández Pina (1984), López Ornat (1992, 1994, 1996) eta Aguirre (1995) ikerlarien datuez baliatuko gara.

3. Hipotesiak

Gorago esan dugun legez, hipotesi nagusia haur elebidunak aldi berean be-reganatzten dituen gramatika biak bereizi egiten dituela eta garapena ezberdindua dela da.

Oinarrizko harreman sintaktikoen markakerari buruz, hots, ergatibitate/akusatibitate fenomenoaz, euskarazko ergatibitatea baitaratzeko garabidean elebidunak elebakarraren antzeko garapena izango duela uste dugu, eta beste horrenbeste gaztelaniazko akusatibitatearenean haur elebakar gaztelauekin erkatuez gero.

Haur elebidunak, beraz, euskaraz, argumentuetan zein aditz-flexioan, subjektu iragangaitzak eta osagarriak subjektu iragankorretatik bereiziko ditu. Subjektu iragangaitzak eta osagarriak absolutiboaren morfemaz markatuko ditu argumen-tuetan eta aurrizkien bidez islatuko ditu aditz-flexioan. Subjektu iragankorrek, aldiz, ergatiboaz argumentuetan eta atzizkiez aditz-flexioan. Gaztelaniaz garatuko duen era, bestalde, akusatiboa izango da, eta subjektu iragangaitzak eta subjektu iragankorrek osagarrietatik bereiziko ditu argumentuetan zein aditz-flexioan.

Bateraketa fenomeno gertatzen dela baieztatzeo, esate baterako, subjektu iragangaitz eta subjektu iragankorren markakera arloan nahasketa gertatu beharko litzateke, euskaraz biak era berean markatuz, edo gaztelaniaz biak bereiziz.

4. Datuak

Euskarazko sistema ergatiboaren garapena eta gaztelaniazko sistema akusatiboaren garapena bereizita erakutsiko ditugu. Lehenengo eta behin euskarazko ergatibitatearen baitaratzeari ekingo diogu.

4.1. Euskarazko sistema ergatiboaren jabekuntza eta garapena

Euskarazko ergatibitatea argumentuetan zein aditz-flexioan islatzen duenez, fenomeno biak bereizita azalduko ditugu. Gainera, iraganeko aditz-flexioan gertatzen den ustezko ergatibitate-etena aztertzeari ere interesgarria deritzogunez, hirugarren azpi-sail batean iraganeko adizkien jabekuntza ere azalduko dugu.

4.1.1. Ergatibitatea argumentuetan

4.1.1.1. Subjektu iragankorrek

Arakatu ditugun haur euskaldunek, elebakarrak zein elebidunak, ez dute funtzio-kategoriarik edo kasu-markarik erabiltzen hitz-biko aro goiztiarrean (Barreña 1994, 1995; Larrañaga 1994; Ezeizabarrena 1996; Eloseggi 1996). Bi urte dituztenean, hots, 2;00 adinaren inguruan, biak hazten dira kasu-markak erabiltzen.

Ergatiboaren markaren erabilera haur bien ekoizpenetan 2. taulan ikus dezakegu. Arakatu ditugun esaldiak aditzen batez ekoizirikoa dira, aditza mugatua edo ez-mugatua izan daitekeelarik. Taula honetarako bildu ditugun

adibideak aditz iragankor edo ezergatibo batez eginiko esaldiak dira eta bertan haurrek burutzen dituzten argumentuen itxura azaltzen dugu.

3. Taula. Subjektu iragankorrak eta ezergatiboak
(aditzen batez ekoitziriko esaldietakoak)

Oitz elebakarra				Mikel elebiduna			
adina	guztira	-erg.	+erg.	adina	guztira	-erg.	+erg.
1,05-1,11	8	8		1;10	1	1	
2;00	9	6	3	2;00	2	2	
2;01	8	2	6	2;01	2	2	
2;02	17	12	5	2;02	4	3	1
2;03	8		8	2;03	9	9	
2;04	42	3	39	2;04	9	3	6
2;05	28	1	27	2;05	3		3
2;06	36		36	2;06	11	2	9
2;07	11	1	10	2;07	8	1	7
2;08	33		33	2;08	11		11
2;09	16		16	2;09	19		19
2;10	37		37	2;10	8	5	3
2;11	16		16	2;11	21		21
3;00	25		25	3;00	31	1	30

Ume hauek ez diote subjektu iragankorrari ergatiboaren -k marka beti eranstean. Batzuetan, subjektua iragankorra (14) zein iragangaitz ezergatiboa (16) denean, ergatiboaren marka ekoizten dute, baina beste batzuetan, ordea, ez diote ergatiboaren marka eranstean subjektu iragankorrari (15).

- (14) ni-k daukat hemen (M, 2,04)
hori amatxo-k eduki du (O, 2,04)
- (15) ni(-k) sartuko dut (M, 2,06)
o(ra)in ni(-k) non marraztu? (O, 2,03)
- (16) Itsaso-k ez du jolastuko (M, 2,11)
Mikel-ek ez du jolasten (O, 2,05)

Datuok ikusirik (3. taula), argumentuetako markakera ergatiboaren jabekuntza-garapena hiru alditan muga daiteke haur biengan:

1- Hasierako aldi batean, funtzio-kategoriarik ez darabilten hitz-biko aroan hain zuzen, umeetariko batek ere ez darabil ergatiboaren markarik. Aldi honetan ez darabilte inolako kasu-markarik (Barreña 1995, Elozegi 1996). Haur hauen ekoizpenetan, kasu-markarik gabeko aldi hau 1,05etik 1,11ra luzatzen da elebakarrarengan eta 1,06tik 1,10era elebidunarengan.

2- Ergatiboaren lehen markak 2,00 eta 2,02/2,05 adinetik aurrera ikus ditza-kegu haur elebakarrarengan eta elebidunarengan, hurrenez hurren. Une honetatik aurrera ergatiboaren marka erro bati baino gehiagori atxikirik ikus dezakegu. Edozelan ere, bigarren aldi honen hasieran haur elebakarrak, *Det* funtzio-kategoriaz jabetu den arren, oraingoz ez darabil *Infl* funtzio-kategoria, ez baitu, bestek beste, subjektuarekiko komunztadura menderatzen. Haur elebidunak, ostera, *Det* zein *Infl* funtzio-kategoriak darabiltza (Barreña 1994, 1995). Aldi honetan ergatiboaren marka batzuetan baino ez darabiltenez, Ezeizabarrenari (1996) jarraituz, ergatiboaren kasu-markakera emankorra dela esan dezakegu, erro ezberdinei erantsirik baitarabilte, baina ez erregularra, beti ez baitarabilte.

Aldi honetan ergatiboaren kasu-marka behar duten subjektu iragankor batzuek (ez dugu subjektu iragangaitz ezergatibodun adibiderik aurkitu aldi honetan) ez dute kasu morfologiarik, ez dute inolako markarik. Itxuraz absolutiboak izan daitezke, kasu honen marka -ø baita, baina ez-markatutzat ere jo daitezkeela iruditzen zaigu, aurreko aldiko egitura ez-markatuekin bat baitatuz. Bigarren aukerari helduez gero, ekoizpen hauek ezin dira akastuntzat jo, izen-sintagmatzat baino, kasu-markarik hartu ez duten izen-sintagmatzat, alegia. Interpretazio honi jarraiturik, ez dira absolutiboak. Alabaina, behin ergatiboa erabiltzeko gai diren unetik horrela eskatzen duten ekoizpen guzti-guztiak kasu-marka honekin ekoizti beharko litzukeela pentsatuz gero, akatsak lirateke. Guk geuk, haurrak gramatika-kategoriez apurka-apurka, mailaz maila, jabetzen direla ikusirik, izen-sintagma markatugabeak direla edo izan daitezkeela uste dugu.

3- Lau edo bost hilabete beluago ikus dezakegu hirugarren aldia, haur elebakarraren ekoizpenean ergatiboaren kasu-markaren erabilera zuzena denean, zuzentasuna ekoizpen guztien % 90era hurbiltzen denean definiturik, hots, 2,05 adinaren inguruan. Haur hau *Infl* funtzio-kategoria, subjektuarekiko komunztadura egokia hain zuzen, 2,03 adinaz hasi da erabiltzen. Haur elebidunaren ekoizpenean, ergatiboaren kasu-markaren erabilera zuzena edo erregularra, ostera, 6 hilabete beluago dakusagu, 2,08 adinaren inguruan alegia.

Badirudi, beraz, haur bien ekoizpenetan ergatiboaren kasu-markakeraren jabekuntza-garapena era bertsuan gertatzen dela, hiru aldi oso antzekoak bereiz baitaitezke: erabilera ezarena, erabilera emankorrarena eta erabilera egokiarena edo erregularrarena.

Bestalde, inguru absolutiboetan ere aurkitu dugu ergatiboaren kasu-markaren erabilera, baina oso gutxitan (17-18). Holakoak ekoizpen guztien % 1era ere ez dira iristen eta batzuetan 3,00 adina dutelarik egin dituzte.

(17) ni-k zarata-rekin bildurto (O, 2,05)

(18) ni-k ibili naiz (M, 3,00)

Adibide bietan argumentu subjektuei ergatiboaren kasu-marka erantsi diote, aditza iragangaitza den arren. Haur elebakarrak ez du adizki laguntzailerik ekoizti, baina elebidunak, aldiz, aditz iragangaitzari dagokion laguntzaile iragangaitz zuzena erabili du. Badira beren burua zuzentzen ikus ditzakegun esaldiak ere. Adibide hauetan argumentuari, lehen gauzapenean, ez diote ergatiboaren kasu-

-marka eransten, baina ekoizpena zuzentzeko asmoz, argumentu subjektua berriro gauzatzen dute ergatiboaren kasu-marka eta guzti (19).

(19) hori(-erg) ez du -, horrek ez du eroaten (O, 2,04)

Osterantzean, behin ere ez dugu objekturik ergatiboaren kasu-markarekin aurkitu.

4.1.1.2. Subjektu iragangaitzak

Argumentu subjektu iragangaitzak absolutiboaren kasu-markaz agertzen dira haur bien ekoizpenetan. Halere, aldi batean ez dago jakiterik argumentu subjektu iragangaitz hauek kasu-markarik duten (-ø hain zuzen) ala izen-sintagma hutsak diren. Laugarren taulan aditzen batez gauzaturiko esaldietan argumentu subjektu iragangaitzek hartzen duten kasu-marka islatzen dugu.

4. Taula. Argumentu subjektu iragangaitzak
(aditzen batez ekoitziriko esaldietakoak)

Oitz elebakarra			Mikel elebiduna		
adina	absolutiboa	ergatiboa	adina	absolutiboa	ergatiboa
			1;10	9	
			1;11	14	
2;00	8		2;00	18	
2;01	9		2;01	3	
2;02	21		2;02	8	
2;03	17		2;03	14	
2;04	43		2;04	44	
2;05	42	1	2;05	19	
2;06	45		2;06	33	
2;07	30		2;07	32	
2;08	67	1	2;08	12	
2;09	53		2;09	14	
2;10	86		2;10	10	
2;11	32		2;11	29	
3;00	35		3;00	45	1
guztira	468	2	guztira	304	1

Haur elebidunaren ekoizpenean absolutiboaren kasu-markaz gauzaturiko 300 argumentu baino gehiago bildu ditugu. Horiez gain ergatiboaren kasu-markaz gauzaturiko argumentu subjektu iragangaitz bat (18). Haur elebakarraren ekoizpenean, berriz, 400 adibide egokiren ondoan 2 argumentu subjektu ergatiboaren kasu-markaz ikus ditzakegu (17). Zuzenketaren estrategia ere nabaria da (20), hasieran gauzaturiko argumentu subjektu iragangaitzari ergatiboaren kasu-marka erantsi arren, jarraian errepikaturiko argumentu bera zuzendu egiten baitu haurrak.

(20) ba ni-k ni-ø etorri naiz zuregana eta ... (O, 2,07)

4.1.1.3. Objektu zuzenak

Atal honetan aditzen batez ekoitziriko objektu zuzenak arakatu ditugu. Berauek 5. taulan bildu ditugu bitan bereizirik, absolutiboaren eta datiboaren kasu-markaren arabera. Gehienetan, haur biek, absolutiboaren kasu-marka darabilte objektua adierazteko (21), 525 adibideetatik 514 bider elebakarrak (% 98) eta 276 adibideetatik 273 bider elebidunak (% 99). Alabaina, batzuetan datiboaren kasu-markaren erabilera ere ikus dezakegu (22-23), 11 aldiz elebakarrak (% 2) eta 3 aldiz elebidunak (% 1). Datiboaren kasu-marka argumentu objektuak markatzeko erabiltzea helduok ere egiten dugu zenbait aditzekin, eta horrelakoak dira, esate baterako, (22) eta (23) adibideak.

5. Taula. Argumentu objektuak
(aditzen batez ekoitziriko esaldietakoak)

Oitz elebakarra				Mikel elebiduna			
adina	absol.	dat(araua)	datiboa	adina	absol.	dat(araua)	datiboa
				1;10	3		
				1;11	1		
2;00	15			2;00	12		
2;01	10			2;01	5		
2;02	10			2;02	3		
2;03	23	4	1	2;03	26		
2;04	52			2;04	35		
2;05	47			2;05	14		
2;06	42		1	2;06	19	1	
2;07	19			2;07	17		
2;08	51			2;08	13		
2;09	37			2;09	14		
2;10	52	2	1	2;10	13		
2;11	38	1		2;11	23		1
3;00	43			3;00	41		1
guztira	514	7	3	guztira	273	1	2

- (21) garajea tapatu dugu (M, 2,04)
 (22) ni-k deitu behar diot Simona-ri (O, 2,10)
 (23) ez ikutu ni-ri! (M, 2,06)

Objektu bakarra datiboaren kasu-markaz gauzatzea, helduok egiten dugun legez, *sakatu*, *deitu*, *oratu* eta *ikutu* aditzekin ikusi dugu. Nolanahi ere, elebakarrak zalantzak dituela dirudi, batzuetan *sakatu* aditzaren argumentu objektu bakarra absolutiboaren kasu-markaz ere gauzatzen baitu.

Baina honez gain, *jo* eta *ikusi* aditzek daukaten argumentu objektu bakarrak ere datiboaren kasu-markaz gauzatzen dituzte (24-25), sarritan behintzat. Aditz

hauek, helduon hizkuntzan absolutiboaren kasu-marka eskatzen dute, nahiz heldu batzuek datiboaren kasu-markaz horrelakoak ere ekoizten dituzten.

Alabaina, *jo* eta *ikusi* aditzen argumentu objektu bakarrei ez diete beti datiboaren kasu-marka eransten, itxarongarria den absolutiboaren kasu-markaz ekoiztiriko esaldiak ere aurkitu baititugu (26-27).

- (24) orain jo egiten diot kotxe-ari (O, 2,06)
- (25) baina gero nik jo egin behar diot Laguni (M, 2,11)
- (26) zergatik jo behar duzu hori? (O, 2,08)
- (27) zuk ikusi hortik Baltz (M, 3,00)

Objektuaren kasu-markakera laburbilduz zera esan dezakegu: 1- Objektu gehienak absolutiboaren kasu-markaz ekoizten dituztela haur biek (elebakarrak 525 adibideetatik 514, % 98 alegia; elebidunak 276 adibideetatik 273, % 99). 2- Batzuetan objektu bakarrak datibo kasu-markaz ere ekoizten dituztela (elebakarrak 11 adibide, % 2 inguru; elebidunak 7 adibide, % 1 inguru). 3- Datiboa, mintzaide helduak bezala, horrela eskatzen duten zenbait aditzekin erabiltzen dutela (*sakatu, oratu, deitu, ikutu,...*). 4- Datiboa, arauaren aurka, absolutiboa eskatzen duten zenbait aditzekin darabiltela (*jo, ikusi,...*). 5- Datiboaren aukeraketa beti ikus dezakegula objektua 1. edo 2. gramatika-pertsonari dagokienean. 6- Objektua 3. gramatika-pertsonari dagokionean, gizakia edo biziduna izanik, absolutiboa (26-27) zein datiboa (24-25) darabiltzatela. Arlo honetan argigarria da haur elebidunak txakur-bizidun objektua markatzeko duen jokabide bikoitza (25-27).

4.1.1.4. Ergatibitatea eta partitiboa

Partitiboaren kasu-markakeraren erabilera, bestalde, kasu-markaketa ergatiboaren frogatzat har dezakegu haur hauen ekoizpenetan, berau subjektu iragangaitzei (29) zein objektuei (30) eransten baitiete. Subjektu iragankorrei, ostera, behin ere ez diote erantsi guk arakatu ditugun ekoizpenetan.

- (29) baina ez dago pintura-rik (M, 2,11)
- (30) baina ez dauka etxe-rik (M, 3,00)

4.1.2. Ergatibitatea aditz-morfologian

4.1.2.1. Aditz-komunztaduraren jabekuntza-garapena

Aditz-komunztaduraren jabekuntza-garapena mailakatua da (Barreña 1994, 1995, Ezeizabarrena 1996, Elozegi 1996). Garapen honetan, laburbildurik, honako urratsak ikus ditzakegu:

a- Aditz-komunztadurarik gabeko urratsa. Hasierako aldi honetan aditz ez-mugatuak eta singularreko 3. pertsonari dagozkion adizki laguntzaile eta trinkoak darabiltzate, baina azken hauek edozein gramatika-pertsonarekin.

b- Subjektuarekiko komunztaduraren urratsa. Urrats honetan subjektuarekiko komunztadura derakusaten adizkiak erabiltzen hasten dira, iragangaitzak zein iragankorrek (objektua beti singularreko 3. gramatika-pertsonari dagokiolarik).

c- Datiboarekiko komunztaduraren urratsa. Oraingoan datiboarekiko komunztadura derakusaten adizkiak ikus ditzakegu, hauek ere iragangaitzak zein iragankorrek izan daitezkeelarik.

d- Objektu zuzenarekiko komunztaduraren urratsa. Hiru urte egin arte haur hauek 3. gramatika-pertsonari dagozkion singularreko eta pluraleko adizkiak baino ez darabiltzate.

e- Denboraren gauzapean-urratsa. Orain arte orainaldiko adizkiak erabili ondoren, urrats honetan iraganeok ere erabiltzen hasten dira.

Garapen honek 7-10 hilabete irauten du, guk arakaturiko haurrengan behinik behin, urte bi inguru dutelarik hasita.

4.1.2.2. *Subjektuarekiko komunztadura*

Gorago esan dugun legez, aditz-morfologiaren jabekuntza-garapenaren aldi batean subjektuarekiko komunztadurarik gabeko urratsa ikusi ahal izan dugu, 3. gramatika-pertsonari dagozkion adizkiak edozein gramatika-pertsonarekin baitarabiltzate (31-32) aldi honetan.

(31) *han dago(-z) (M, 1,09)

(32) *ni-(k) dauka-ø jertsea (O, 2,02)

Haurrek, jarraian, aditz-komunztaduraz jabetu direla islatzen dute. Darabilten lehen ezaugarria subjektuarekiko komunztadurarena da, adizki iragangaitzetan zein iragankorretan. Datu honek, lehen begiratuan, badirudi funtzio sintaktikoaren aldeko hipotesia edo ustea bermatzen duela, baina ondoren ikusiko dugunez, hasiera-hasieratik bereizten dituzte subjektu iragankorren atzizkiak eta subjektu iragangaitzen aurrizkiak.

Subjektu iragankorrek eta iragangaitzak aditz-morfologian adierazteko hiru urte egin arte darabiltzaten bideak 6. eta 7. tauletan ikus ditzakegu. Subjektu iragangaitzak, pluraleko adizkien pluralgile-markaz gain, aurrizkien bidez islatzen dituzte (33 eta 35). Subjektu iragankorrek, aldiz, ohiko atzizkien bidez adierazten dituzte (34 eta 36). Singularreko eta pluraleko 1. gramatika-pertsona *n-* eta *g-* aurrizkiez ekoitzi dute (33) eta (35) adibideetan subjektu iragangaitzak direlako eta *-t* eta *-gu* atzizkiez (34) eta (36) adibideetan subjektu iragankorrek direlako.

6. Taula. Subjektu iragangaitzen islapena aditz-komunztaduran
(*elebakarra* eta *elebiduna*)

Adina	1s	2s	3s	1pl	2pl	3pl
	n-	z-	d-	g- + pl.	z- + pl.	d- + pl.
1,07			0 - 4			
1,09			0 - 26			
1,10			0 - 15			
1,11			0 - 18			
2,00			11 - 77			0 - 1
2,01	0 - 1		4 - 7			
2,02			31 - 50			
2,03	3 - 0		27 - 20			0 - 2
2,04	3 - 3	1 - 0	59 - 62			0 - 3
2,05	12 - 0	1 - 0	91 - 36			4 - 0
2,06	1 - 1		92 - 41			9 - 3
2,07	5 - 1		34 - 27	0 - 2		7 - 4
2,08	11 - 1	5 - 0	67 - 28	1 - 2		14 - 1
2,09	4 - 1	5 - 0	56 - 26	1 - 0		6 - 3
2,10	5 - 1	2 - 0	90 - 11	2 - 1		18 - 2
2,11	0 - 5	4 - 2	35 - 32			8 - 1
3,00	6 - 6	0 - 2	53 - 53	2 - 1		4 - 12
guztira	50 - 20	18 - 4	650 - 533	6 - 6		70 - 31

7. Taula. Subjektu iragankorren islapena aditz-komunztaduran
(*elebarra* eta *elebiduna*)

adina	1s	2s	3s	1pl	2pl	3pl
	-t	-zu	-ø	-gu	-zue	-te
1,07			0 - 1			
1,09			0 - 9			
1,10			0 - 3			
1,11			0 - 17			
2,00	0 - 3		0 - 17	0 - 1		
2,01	0 - 2		0 - 6			
2,02	0 - 1		4 - 6			
2,03	3 - 9	0 - 5	3 - 19			
2,04	6 - 24	1 - 3	13 - 17	3 - 5		
2,05	21 - 18	4 - 2	20 - 5	3 - 2		
2,06	16 - 25	10 - 2	26 - 4	5 - 3		2 - 0
2,07	21 - 16	2 - 1	9 - 6	1 - 2	1 - 0	6 - 6
2,08	39 - 14	13 - 2	33 - 10	4 - 3		4 - 1
2,09	23 - 22	11 - 1	20 - 7	6 - 2		2 - 1
2,10	45 - 13	10 - 1	40 - 1	9 - 12		1 - 0
2,11	32 - 28	5 - 3	9 - 11	11 - 16		2 - 1
3,00	54 - 29	8 - 5	9 - 18	0 - 11		5 - 3
guztira	255 - 204	64 - 25	186 - 157	42 - 56	1 - 0	22 - 12

- (33) ni bildurtu egin n-aiz (M, 2,01)
- (34) bazkaltzen du-t (M, 2,02)
- (35) ba-g-oaz (M, 2,04)
- (36) non ipiniko du-gu kotxea? (M, 2,04)

4.1.2.3. Objektuarekiko komunztadura

Haur bien objektu zuzenarekiko komunztaduraren erabilera ohiko aurrizkien bidez 8. taulan bildu dugu. Bertan ikus daitekeenez, aurrizkien bidez gauzaturiko adizkiak singularreko zein pluraleko 3. gramatika-pertsonari dagozkionak baino ez dira. Jokabide bera haur biengan ikus daiteke, gainera. Lehenetariko adibideak singularreko 3. gramatika-pertsonari dagozkio. Pluraleko pertsonarekiko aurkakotasuna 2,05 eta 2,04 adinekin agertu da elebakarrarengan eta elebidunarengan, hurrenez hurren. Hiru urte egin arteko ekoizpenetan elebakarrak pluraleko adizkiren batez 35 esaldi gauzatu ditu eta singularrekoekin 500 baino gehiago. Elebidunak, ostera, pluralekoekin 3 esaldi egin ditu eta 400 baino gehiago singularrekoekin. Edozelan ere, hiru urtetik aurrera 3. gramatika-pertsonari dagozkion pluraleko adizkiak nabarmen ugaltzen dira haur biengan (Barreña 1995).

8. Taula. Objektu zuzenen islapena aditz-komunztaduran
(elebakarra eta elebiduna)

Adina	1s	2s	3s	1pl	2pl	3pl
	n-	z-	d-	g- + pl.	z- + pl.	d- + pl.
1,07			0 - 1			
1,09			0 - 9			
1,10			0 - 4			
1,11			0 - 17			
2,00			0 - 21			
2,01			11 - 8			
2,02			4 - 7			
2,03			6 - 33			
2,04			23 - 48			0 - 1
2,05			48 - 27			
2,06			56 - 34			3 - 0
2,07			40 - 25			
2,08			85 - 30			4 - 0
2,09			58 - 32			4 - 1
2,10			90 - 26			15 - 1
2,11			55 - 59			4 - 0
3,00			71 - 66			5 - 0
guztira			547 - 443			35 - 3

Hirugarren gramatika-pertsona absolutiboari dagozkion adizki singularrak eta pluralak pluralgilearen bidez bereizten dira. Tradizionalki 3. gramatika-pertsonari dagokion aurrizkia *d-* dela uste izan den arren (Lafitte 1944, Txillardeggi 1974, 1978, Goenaga 1978), badira aurrizki hori, 3. gramatika-pertsonari egokitu beharrean, aldia edo moduaren marka izan daitekeela diotenak ere (Trask 1981, Laka 1988, Oyharçabal 1992). Hipotesi honen arabera, hirugarren gramatika-pertsona objektuaren edo subjektu iragangaitzaren islapena aditzean zero litzateke, pluralgileari dagokiona pluraleko gramatika-pertsona guztiengan ikus baitaiteke. Lehen eta bigarren gramatika-pertsonak, ordea, objektuak eta subjektu iragangaitzak direnean, aurrizkien bidez islatzen dira aditz-morfologian.

Hau guztiau ikusirik, zera adierazi nahi dugu haur hauen jabekuntza-garapenari buruz, objektuaren aditzarekiko komunztaduraren jabekuntzaz, alegia:

a- Ezin dezakegu baieza aditz-komunztaduraren erabilera objektuarekiko islapena 3. gramatika-pertsonari dagozkion singularreko eta pluraleko adizkien erabilera kontrajarria gertatu arte (2,05 eta 2,04 adinak dituzten arte, alegia).

b- Egiten duten bereizketa, 3. gramatika-pertsonari dagozkion singularreko eta pluraleko adizkiarena, pertsona-ezaugarriari baino gehiago numero-ezaugarriari dagokio.

c- Egiten duten bereizketa, 3. gramatika-pertsonari dagozkion singularreko eta pluraleko adizkiarena, helduok egiten dugun modukoa da, baina 1. eta 2. gramatika-pertsonari dagozkien aurrizkiak objektuak adierazteko ez darabiltzatenez, subjektu iragangaitzetan badarabiltzaten arren, ezin dezakegu baieza garatu duten aditz-morfologian objektuak eta subjektu iragangaitzak era berean adierazten dituztenik.

Nola islatzen dituzte aditz-morfologian 1. eta 2. pertsonari dagozkien objektuak haur hauek? Bederatzigarren taulan haur hauek 3 urte izan arte erabili dituzten NORI iragankordun adizkiak bildu ditugu, hots, zehar objektuari dagozkion adizki iragankorrak. Bigarren zutabearen halakoen kopuru osoak islatu ditugu, aditzek objektu bakarra zein bi objektu dauzkaten arren, baina hurrengo zutabeetan objektu bakarreko adizkiak baino ez ditugu aztertu. Azterketa honetan gramatika-pertsonak bereizteaz gain, ohiko helduen jokabidea jarraitzen duten adibideei *E* zeinua erantsi diegu eta ohiko nagusien jokabidetik bereizten direnei inolako markarik ez diegu erantsi. Objektu bi dauzkaten aditz iragankorrak ez ditugu aztertu, nahiz berauek izan diren haur biek erabili dituzten lehenengoak.

Nabaria da, artizkien bidez komunztatzen diren adizki iragankor hauen artean, badirela nagusien jokabidea jarraiturik ekoitzi dituztenak. Hau da, objektu bakarra izan arren, berau zehar objektuari dagokion artizkiaren islatzen dutela aditz-morfologian. Elebakarrak 3,00 adina izan aurretik NORIrekiko komunztadura erakusten duten 56 adizki iragankor ekoitzi ditu. Hauetariko 41 objektu birekin eta 15 objektu bakarrekin; azken hauetarik 11, mintzaide helduen araua jarraiturik gauzatu ditu. Mintzaide helduek egiten ez duten legez, artizkiez adierazitako objektu bakarrak 4 dira guztira. Elebidunak, adin bera izan arte, NORIrekiko komunztadura derakusaten 30 adizki iragankor ekoitzi ditu. Hauetako 23tan objektu bi ikus ditzakegu. Gaineko 7etatik 3 mintzaide helduek bezala egiten ditu, nahiz

objektu bakarra artizkiez islatu. Azkeneko 4etan objektu bakarra artizkiez markatu du, baina hauetan mintzaide helduen arabera aurrizkiak erabili beharko zituzkeen.

9. Taula. Artizkien bidezko objektu zuzenen islapena aditz-komunztaduran
(*elebakarra eta elebiduna*)

adina	artizkien ekoizpen osoa	1s -t/-da-	2s -zu-	3s -o-	1pl -gu-	2pl -zue-	3pl -e-
2,04	2 - 1						
2,05	2 - 5		0 - 1				
2,06	8 - 0	1E - 0		1 - 0			
2,07	2 - 4	1E - 0	0 - 2				
2,08	11 - 1	3E - 1E					
2,09	4 - 3	1E - 2E		1 - 0			
2,10	11 - 5	1 - 0		2E + 1 - 0			
2,11	11 - 7			2E - 1			
3,00	5 - 4	1E - 0					
guztira	56 - 30	7E - 3E 1 - 0	0 - 2	4E - 0E 2 - 2			

Datu hauek ikusirik, haur bien jokabidea berdin samarra dela esan dezakegu. Batetik egoki bereizten dituzte objektu zuzenari eta zehar-objektuari dagozkien morfemak aditzek objektu bi dauzkatenean. Bestetik, objektu bakarra, zenbaitetan, mintzaide helduek egiten duten bezala, artizkiez islatzen ere ikasi dute. Azkenik, objektu bakarra artizkiez islatzearen jokabidea, nagusiek horrela egiten ez duten zenbait aditzekin, biek egiten dute, lehenago argumentuen markakera aztertu dugunean ikusi dugun bezala, objektuaren gramatika-pertsona 1.a edo 2.a denean batez ere. Edozelan ere, badira artizkiez islaturiko 3. gramatika-pertsona objektu bakarrak ere, gizakiak eta bizidunak direnak.

4.1.2.4. Aditz-komunztaduraren jabekuntzaren laburbilketa

Aditz-komunztaduraren jabekuntzaren laburbilketa honakootan bildu dugu:

a- Haur biek bereizten dituzte subjektu iragangaitzak eta iragankorrak aditz-morfologian. Subjektu iragangaitzak aurrizkien bidez islatzen dituzte. Subjektu iragankorrak eta iragangaitz ezergatiboak, arauak agindurik, atzizkien bidez adierazten dituzte.

b- Objektuen islapena aditz-morfologian nahasi samarra da. Batzuetan, araua gorderik, aurrizkiez islatzen dituzte, batez ere 3. gramatika-pertsonari dagozkion adizkiak direnean. Beste batzuetan, ostera, artizkiez adierazten dituzte. Artizkiez islaturiko zenbait bat datoz arauarekin, baina beste batzuk ez. Nolanahi ere, horrelaxe adierazten dituzte 1. eta 2. gramatika-pertsonari dagozkien adizki guztiak eta 3. gramatika-pertsonari dagozkion apur batzuk, batez ere gizakiak eta bizidunak direnak.

c- Ez dute markakera ergatiboa apurtzen markakera akusatiboren bat gauzatzeko. Gehienez markakera hirukoitzerantz abiatzen direla esan daiteke, subjektu iragangaitzak –aurrizkiez–, subjektu iragankorrek (eta subjektu iragangaitz ezerगतiboa) –atzizkiez– eta objektuak -aurrizkiez edo artizkiez- morfema ezberdinez islatzen dituztelako.

d- Objektuak adierazteko darabilten sistema hau, 1. eta 2. pertsonen dagozkien adizki guztiak eta 3.ari dagozkion zenbait bizidun artizkiez islatzea, ezin daiteke jabekuntza-garapeneko interferentzia edo bateraketa baten emaitzat hartu, elebakarrak ere horrelaxe egiten baitu.

4.1.3. Ergatibitatea iraganeko aditz-komunztaduran

4.1.3.1. Aditz-komunztadura iraganean

Lehenago ere adierazi dugun legez, iraganeko adizkien markakera gertatzen dena ikusirik, baliteke sistema ergatiboaren markaketak etena ezagutzen duela arlo honetan uste izatea. Komunztadura bikoitzeko zein hirukoitzeko iraganeko adizki iragankorretan, objektuari dagokion morfema zero da 3. gramatika-pertsona guztietan, pluralak pluralgileaz, numeroaren markaz alegia, ezberdintzen direlarik. Beste hitz batzuk erabiliz, orainaldiko *d-* aurritzia zero bihurtzen dela iraganeko iragankorretan, iragangaitzetan *z-* bihurtzen den arren. Hau, noski, *d-* eta *z-* aurritzia pertsona-komunztadura adierazten dutela onartzen badugu.

Halako adizkietan, subjektu iragankorrek aurritzien bidez islatzen ditugu, orainaldikoetan eta iraganeko besteetan atzizkien bidez adierazten ditugun arren. Subjektu iragangaitzak bezala islatzen ditugu, aurritzien bidez. Gainera, subjektu iragankor hauek islatzeko darabiltzagun aurritzia subjektu iragangaitzak direnean islatzeko darabiltzagun aurritzien oso antzekoak dira forman ere, singularrekoetan berdin-berdinak direlarik (7).

Begiratu beharreko kontua, beraz, zera da: nola jabetzen dira haur euskaldunak iraganeko markakera-sistema bikoitz honetaz?

4.1.3.2. Iraganeko aditz-morfologiaren jabekuntza

Lehendabizi bergogoratu gura dugu iraganeko adizkiak haur hauek 2,07 eta 2,10 adinak dituztenean hasten direla erabiltzen, subjektuarekiko, zehar objektuarekiko eta objektu zuzenarekiko (hirugarren singularrak eta pluralak) komunztadura bereganatu ondoren.

Elebakarrak iraganeko 53 adizki darabiltza 3,00 adina izan arte. Elebidunak, ostera, 26. Adizki guzti hauetarik objektua 3. gramatika-pertsonari dagokiona daukatenak 21 dira elebakarrarengan eta 16 elebidunarengan.

Datuak ikusirik haur biek derakusate jokabide bikoitza. Batetik, mintzaide helduek bezala, markakera ergatiboaren etentzat jo daitekeen bidea aukeratzen dute, hots, akusatibotzat har daitekeen markakera (37). Bestetik, adizki berriak eraikitzen dituzte. Bide berri honen arabera, orainaldiko adizkiei iraganeko *-(e)n* marka eransten diete (38). Lehenengo bidea NOR-NORK motako adizkiekin darabilte, bigarrena, aldiz, NOR-NORK motakoekin zein NOR-NORI-NORK motako guztiekin.

Iraganeko adizki berriak sortzearen jokabidea, orainaldiko adizkiei iraganeko *-(e)n* morfema erantsiz, ez da hain fenomeno berria (Elordui 95), zeren hainbat mintzaide heldu eta gaztek gauza bera egiten baitute, Bizkaian eta Gipuzkoan behinik behin. Kontua da erabilera honen interpretazioa. Guri arrazoi bi egon daitezkeela iruditzen zaigu. Batetik, orain arte uste izan den bezala, aditz-sistema errazteko modua da, orainaldiko adizkiei iraganeko morfema hutsa erantsiz. Bestetik, markakera ergatiboari eusteko modua ere izan daiteke. Beharbada, arrazoi biak batera ere egon daitezke. Nolanahi ere, ondorioa zera da, haur elebakarrak eta elebidun orekatuak iraganeko adizkiak ekoiztean bi eratakoak osatzen dituztela.

(37) eta eduki n-u-en txapela (O, 2,10)

(38) nik hemen egin d-u-t-en lo (O, 2,09)

Haur elebakarrak, 10. taulan ikus daitekeenez, goizago darabiltza markakera ergatiboari eusten dioten adizki berriak bere gurasoengandik entzuten dituen ohiko iraganeko adizkiak baino. Haur elebidunak, ostera, hasiera-hasieratik urratzen ditu bide biak.

Elebakarrak 13 aldiz darabiltza ergatiboki eraikiriko adizki berriak eta 8 bider, itxuraz, akusatiboki eraikiriko ohiko adizkiak. Elebidunak, berriz, zortzina adibide ditu aukera bakoitzean.

10. Taula. Iraganeko adizkiak
(*elebakarra* eta *elebiduna*)

adina	guztira	iragangaitzak	iragankorrak (akus. erakoak)	iragankorrak (erg. erakoak)
2,07	2 - 0	1 - 0		1 - 0
2,08	5 - 0	5 - 0		
2,09	13 - 0	7 - 0	3 - 0	3 - 0
2,10	17 - 7	12 - 2	2 - 4	3 - 1
2,11	13 - 3	5 - 0	2 - 1	6 - 2
3,00	3 - 16	2 - 8	1 - 3	0 - 5
guztira	53 - 26	32 - 10	8 - 8	11 - 8

Bada beste datu interesgarriker ere. Haurrek darabiltzaten iraganeko adizki iragankorrak, komunztadura bikoitzeoetan (NOR-NORK motakoak) eta komunztadura hirukoitzeoetan (NOR-NORI-NORK motakoak) bereiziez gero, jokabide ezberdina ikus dezakegu. Komunztadura bikoitzeoetan, haur biek darabiltzate aukera biak, hots, ohiko itxurazko adizki akusatiboak⁶ zein adizki berri ergatiboak. Komunztadura hirukoitzeoetan, ostera, adizki berri ergatiboak baino ez ditugu bildu haur bien ekoizpenetan.

Komunztadura bikoitzeko adizki iragankorrak, objektua 3. gramatika-pertsona denean, 12 dira euskaraz, 6tan objektua singularra delarik eta beste 6tan plurala.

6. *Adizki akusatiboak* eta *adizki ergatiboak* hitzekin subjektuak eta objektuak aditzetan islatzean jarraitzen den sistema adierazi nahi dugu.

Gogoan izan behar dugu haur hauek ez dutela hitanoren formarik erabiltzen. Komunztadura hirukoitzeko adizki iragankorrak, objektua 3. gramatika-pertsona izanik, aitzitik, 56 dira, 28k singularreko objektua daukatelarik eta beste 28k pluralekoa.

Hau guztiau ikusita, guk aztertutako haurrek adizki ergatibo berriak eraikitze-ko joera dutela uste dugu, zeren ohiko itxurazko adizki akusatiboaren erabilera komunztadura bikoitzeko arloa mugatzen baitute, adizki ergatibo berrien erabilera komunztadura bikoitzeko zein hirukoitzeko arloetara hedatzen dutelarik. Beste hitz batzuek ez esanik, sormena zabalagoa den arloan, hots, komunztadura hirukoitze-koetan, adizki ergatibo berriak baino ez darabiltzatelako.

Iraganeko adizki ergatibo berri hauen erabilerak, besteak beste, baliteke markakera ergatiboaren jabeakuntzaren islapena edo ondorioa ere izatea. Mintzaide helduei entzuten dizkieten itxurazko adizki akusatiboaren ordez, haurrek adizki ergatibo berriak eraiki dituzte. Haur hauek halako adizki ergatibo berriak ez dituztela sortu pentsatuko bagenu ere, entzun dituzten era bitakoen artean batez ere adizki ergatibo berriak aukeratu dituztela azpimarratu beharko genuke.

Adizki ergatibo berri hauetan, haurrek, subjektu iragangaitzak eta iragan-
korrak ezberdindu egiten dituzte aditz-morfologian, orainaldikoak ezberdintzen dituzten legez. Objektuak, helduek bezala markatzen dituzte, singularrekoak *d-* edo zero markarekin, eta pluralekoak numeroari dagokion pluralgileaz bereizirik.

4.2. Gaztelaniaren sistema akusatiboaren jabeakuntza eta garapena

Lehenago ere aipatu dugun legez, Gobernu eta Uztarduraren eredutik (Hernanz & Brucart 1987, Demonte 1989) subjektuak nominatiboarekin markatzen dira eta objektuak, ordea, akusatiboarekin. Aditz-morfologiak subjektuarekiko komunztadura derakusa baina ez du inoiz subjektuaren iragankortasuna edo iragangaiztasuna morfologikoki adierazten. Klitikoaren sistemaren bidez objektu zuzenak eta zehar objektuak aditz-morfologian ere erabil daitezke. Hori dela eta, badira gaztelaniak komunztadura hirukoitza dutela dioten hizkuntzalariak ere (Suñer 1988, Franco 1994).

4.2.1.1. Akusatibitatea argumentuetan

Gaztelanian ez dira subjektu iragangaitzak eta subjektu iragankorrak morfologikoki bereizten. Subjektuak eta objektuak, ostera, bai. Argumentu subjektuek ez daukate marka morfologikorik, baina aditzaren ezkerrean agertzeagatik edo aditzarekin daukaten pertsona-komunztaduragatik ezagutzen ditugu. Objektu zuzenak, aitzitik, bi eratan bereizten dira. Bereizketa morfologikoa badute, *a* preposizioa hartzen dute. Sintaxiaren bidez bereizten baldin badira, egongune jakin batzuetan agertzen zaizkigu, bereziki aditzaren ostean.

Subjektuen eta objektuen arteko bereizketa, bada, egongune ezberdinen arabera, *a* preposizioari esker eta aditz-komunztaduraren bidez gertatzen da.

4.2.1.2. Subjektuak

Gaztelaniazko subjektuak, euskaraz egin dugun bezala, iragangaitzetan (39) eta iragankorretan (40) bereiziko ditugu, gure asmoa euskararekiko interferentziarik dagoenentz arakatzea baita.

(39) aquí hay un coche (M, 1,11)
 ahora el mío corre (M, 2,00)
 yo voy a ver esto (M, 2,02)
 viene un coche (M, 2,04)

(40) yo no veo (M, 1,11)
 tú no coge(s) (M, 2,00)
 yo tengo (M, 2,02)
 ayudo yo (M, 2,04)

Adibideotan subjektu iragangaitzak eta subjektu iragankorrak ez dituela morfologikoki bereizten ikusi ahal izan dugu. Badirudi egongunea ere ez duela erabiltzen bereizketa hau gauzatzeko, era bietako subjektuak aditzaren ezkerretara zein eskumatara ekoizten baititu haur honek (11. taula).

11. Taula. Argumentu subjektuak gaztelaniaz

adina	aditz-aurreko subjektu iragang.	aditz-osteko subjektu iragang.	aditz-aurreko subjektu iragank.	aditz-osteko subjektu iragank.
1,10	2	1	1	
1,11	4	8	2	1
2,00	4	2	3	1
2,01	2	13	4	2
2,02		13	5	2
2,03	7	3	8	1
2,04	7	8	9	2
2,05		2	4	1
2,06	12	6	6	
2,07	10	13	5	2
2,08	2	4	7	1
2,09	5	5	8	
2,10	10	10	8	7
2,11	18	8	13	4
3,00	11	5	6	2
guztira	94	101	89	26

Aditzaren aurrean zein ostean (41) subjektua gauzatzeak ez dirudi araren bati jarraitzen dionik, nahiz zenbait aditzekin, hala nola *hay* eta *está(n)*, subjektuak aditz ostean jartzeko joera nabarmena izan (42). Subjektu iragankorrak aditzaren

aurrean jartzeko joera derakusa, alabaina % 20, gutxi gorabehera, aditzaren ostean ekoizten ditu.

(41) poní yo (M, 2,02)

yo poní (M, 2,00)

(42) sí hay gato (M, 1,11)

sí hay esto (M, 1,11)

está(n) todo(s) (2,01)

4.2.1.3. Objektuak

Haur honek objektuak *a* preposizioaren bidez zein hurrenkera sintaktikoaren bidez markatzen dituen arren, bigarren bidea da goiztiarra eta maizen erabiltzen duena. Objektu zuzenak egongune zehatz batzuetan gauzatzen ditu, aditzaren ostean esaldi ez-markatuetan edo aditzaren aurrean objektua mintzagaia denean edo *nz* galderetan, gaztelaniaz ohikoa denez.

Ondoko taulan, 12.ean, haur honek ekoizten dituen objektu guztiak bildu ondoren, hurrenkeraren arabera bereizi ditugu. Adibideotan ondoko hurrenkera-egonguneak ikusi ditugu: aditz-osteko objektuak -(S)AO-, aditz-aurrean mintzagai-turiko objektuak -O(o)A(S)-, aditz-aurreko *nz* objektuak -nzV(S)-, aditz eta subjektu-osteko objektuak -ASO-, aditz-aurreko objektuak -OA-, aditz-aurreko baina subjektu-osteko objektuak -SOA- eta, azkenik, *a* preposizioaz markaturiko objektuak.

12. Taula. Argumentu objektu zuzenak gaztelaniaz

adina	guztira	(S)AO	O(o)A(S)	nzA(S)	ASO	OA	SOA	a prep.
1,09	1	1						
1,11	3	3						
2,00	4	4						
2,01	16	14		1		1		
2,02	12	11			1			
2,03	19	15	3	1				
2,04	12	12						
2,05	3	3						
2,06	18	17	1					
2,07	28	25	2	1				
2,08	15	11		4				
2,09	18	15	1	1			1	
2,10	36	32		1	2			1
2,11	51	41	7	1	1			1
3,00	27	24	2		1			
guztira	263	228 % 86,7	16 % 6,1	10 % 3,8	5 % 1,9	1 % 0,4	1 % 0,4	2 % 0,8

Azpirarragarria iruditzen zaigu 2,00 adina duen arte objektu guztiak aditz-ostekoak direla ikustea (43). Aditz-osteko egongune hau, haur honek 3,00 adina duen arte gehien erabiltzen duena da, korpus osoan horrela gauzatzen baititu objektuak % 89,4 aldiz: (S)AO hurrenkerakoak % 86,7 (43), ASO hurrenkerakoak % 1,9 (44-45) eta *a* preposiziodunak % 0,8.

(43) toma u(n) coche (M, 1,09)

vamo(s) a ve(r) la sala (M, 1,11)

(44) casi me ha pillado la carreta mi mano (M, 3,00)

(45) aita (padre), ha dicho Oitz que ese perro es tonto (M, 2,10)

Subjektuaren osteko aditz-osteko objektua –ASO– 5 bider ekoitzi du, bilduriko adibideen % 1,9an, alegia. Halako zenbait adibide gaztelaniaren arauarekin bat ez badatoz ere, Euskal Herriko gaztelaniadun elebakarren ahoetatik entzutea ez da gauza bitxia.

Aditz aurreko objektuaren egongunea mintzagai legez –O(o)A(S)– eta *nz* galderetan –nzA(S)– bat dator gaztelaniazko arauagaz. Halako egiturak (46 eta 47), 11. taulan ikus daitezkeenez, 2,03 eta 2,01 adinetik aurrera ageri dira eta berauen maiztasuna % 6,1 eta 3,8 da. Mintzagai bezala darabilenean objektua aurreraturik, ez du beti beharrezkoa den klitikoa (*lo, los,...*) gauzatzen. Edozelan ere, jokaera hau ohikoa da Euskal Herriko gaztelanian hitzun elebakarrengan ere. 2,11 adinetik aurrera hasten da ekoizten haur hau halako inguruetako klitikoak (47).

(46) ¿qué hago? (M, 201)

¿qué has hecho? (M, 2,03)

(47) esto te (lo) tiro (M, 2,03)

esto no lo pongo yo (M, 2,11)

Akusatiboa markatzeko *a* preposizioaren erabilera 2,10 adinarekin ikus dezakegu lehen aldiz eta 3,00 adina bitartean birritan baino ez du erabili, % 0,8 aldiz hain zuzen (48).

(48) ¡esperarme a mí! (M, 2,10)

¿dónde le llevaba el tío a Mac? (M, 2,11)

Preposizio honen erabilera beste inguruetan goizago ikus dezakegu: *a* + infinitibo 1,11 adinetik aurrera, datibo legez 2,03 adinagaz, ablatiboak erakitzeko 1,11 adinarekin, eta abar.

Nabarmena da *a* preposizioaren erabilera objektu zuzenak markatzeko egongunearen erabilera baino beluago gertatzen dela haur honen ekoizpenean.

OA (49) eta SOA (50) hurrenkeretako adibideak ez datoz bat gaztelaniaren arauarekin. Euskarazko egituren edo hurrenkeren interferentziaren ondorioak dirudite, gauza jakina baita euskaraz aginteretan objektua aditzaren aurrean ager

daitekeela eta SOA hurrenkera ez-markatua dela. Nolanahi ere, egitura hauek gaztelaniaz behin baino ez ditu erabili haur honek guk bildu ditugun adibideetan.

(49) ¡cuchillo toma! (M, 2,01)

(50) yo esto llevo (M, 2,09)

Bestalde aginteretan euskarak aditz-aurreko zein osteko objektuak onesten dituen arren, eta haur honek horrela erabiltzen dituen arren % 30 eta 70 aldiz, gaztelaniaz, aditz-aurreko egongunea behin baino ez darabil halakoetan objektua gauzatzeko (49).

4.2.1.4. *Argumentu subjektuak eta objektuak haur gaztelau elebakarren ekoizpenetan*

Atal honetan Aguirre (1995) eta Hernández Pina (1984) ikerlariak bilduriko datuak aztertuko ditugu. Ikerlari hauek subjektuen eta objektuen markakera zuzenean arakatzen ez badute ere, aditz-komunztadura eta sintagmen jabekuntza ikertzen dutenez, hainbat adibide eskaintzen digute.

Aguirrek (1995) aditz-morfologiaren jabekuntza aztertu du hiru haur gaztelau elebakarrengan eta, hauek ekoitzi dituzten esaldiak ikusirik, subjektuak eta objektuak guk aztertu dugun haur elebidunaren modu bertsuan egiten dituztela esan dezakegu. Batetik, argumentu subjektu iragankorrek eta iragangaitzak ez dituzte morfologikoki markatzen, ez eta euren artean ezberdintzen. Bestetik, sintaktikoki ere ez dituzte bereizten esaldian betetzen duten egongunearen arabera, bietakoak aditz-aurrean zein ostean ekoizten baitituzte. Ondoko adibideetan subjektu iragangaitzak aditz-ostean (51a,c) zein aditz aurrean (51b,d) eta subjektu iragankorrek aditz aurrean (52a) zein aditz-ostean (52b) ikus ditzakegu.

(51) be van avión (se va el avión) (Aguirre 1995, Ma, 1,08)

Clara llora (Aguirre 1995, Ma, 1,08)

se va faro (Aguirre 1995, Ma, 1,10)

las nubes se van (Aguirre 1995, Ma, 1,10)

(52) yo pinto (Aguirre 1995, Al, 2,04)

pinto yo (Aguirre 1995, Al, 2,05)

Alabaina, subjektuak eta objektuak egongunearen arabera bereizten dituzte. Aguirrek (1995) bilduriko aditz-osteko 22 objektu aurkitu ditugu (53) eta 2 aditz-aurreko baino ez, biak oso goiz erabiliak, haurrek *Infl* funtzio-kategoriaz jabetu baino lehenago (54).

(53) quiero aba (Aguirre 1995, Ma, 1,07)

tiene frío (Aguirre 1995, Ma, 1,07)

hace caca (Aguirre 1995, Ma, 1,07)

(54) colilla quita (Aguirre 1995, Ma, 1,07)

nene quita (Aguirre 1995, Ma, 1,07)

Mintzagai-inguruetan eta nz-galderetan ohiko aditz-aurreko objektuak ere aurkitu ditugu, hots, (O)(o)AS (55) eta nzAS (56) hurrenkeretakoak.

(55) lo ha mojado Roxana (Aguirre 1995, Ma, 1,07)

(56) ¿qué tiene ése? (Aguirre 1995, An, 1,07)

Bestalde, a preposizioari buruz zera esan dezakegu, inguru ablatiboetan, datiboetan eta aditz ez-mugatuen aurrean aurkitu dugula preposizio hau, baina behin ere ez dugula ikusi, egileak adierazitako adibideen artean, objektu baten aurrean.

Subjektu eta objektu argumentu biak gauzatzen dituzten esaldietan haur hauek SAO (57) eta AOS (58) hurrenkerak darabiltzate.

(57) y yo cojo un cangrejo (Aguirre 1995, Ma, 1,07)

(58) ha hecho caca este niño (Aguirre 1995, An, 1,07)

Hernández Pinak (1984) 2,01 adinetik 2,06 adinera bitarteko haur elebakar baten aditz-flexioaren jabekuntza arakatu du. Bere ikerketan SAO hurrenkeraren erabilera azpimarratzen du besteen gaineratik (59), baina AOI (60) eta AO (61) hurrenkera ere ikus ditzakegu, subjektua aditz iragankor eta iragangaitzen aurrean (59) edo ostean (62) joan daitezkeelarik.

(59) nene come uvas (Hernández Pina 1984, Ra, 2,01-2,06)

(60) compra correa a elefante (Hernández Pina 1984, Ra, 2,01-2,06)

(61) dame agua en la jarra (Hernández Pina 1984, Ra, 2,01-2,06)

(62) marchó papá (Hernández Pina 1984, Ra, 2,01-2,06)

no puede nene (Hernández Pina 1984, Ra, 2,01-2,06)

Alabaina, Hernández Pinak guk geure ikerketako haur elebidunaren ekoizpenean aurkitu ditugun AOS hurrenkera (63) eta aginteretako OA hurrenkera (64) ere aurkitu zituen.

(63) coge galletas Rita (Hernández Pina 1984, Ra, 2,01-2,06)

(64) gafas rompes (Hernández Pina 1984, Ra, 2,01-2,06)

Datu hauek ikusirik, badirudi gure ikerketako haur elebidunak gaztelau elebakarren moduan markatzen dituela subjektu eta objektu argumentuak: subjektu iragankor eta iragangaitzak aditz-aurreko zein osteko egonguneetan eta objektuak egongune zehatzetan, batez ere aditz-ostean. Zerbait berezia esatekotan, haur elebidunak aditz-osteko egongunea bereziki indartzen duela esango genuke.

Magín eta Rafael elebakarren OA hurrenkerako (54 eta 64) esaldiak ikusirik, elebidunarengan aurkitu dugun gaztelaniazko hurrenkera berbera duen esaldi

bakarrean (49) izan zitekeen euskal egituraren interferentzia gutxietsi egin beharko genuke.

Nolanahi ere, haur elebidunak gaztelaniaz erabili duen SOA hurrenkera (50) ez da haur elebakarren ekoizpenetan agertzen. Badirudi, beraz, zilegia dela ekoizpen hau euskal egituraren interferentziari esker gauzatu duela pentsatzea, baina hurrenkera honetaz behin baino ez denez gaztelaniaz baliatu (orotara 263 adibide bildu ditugularik), pentsatzekoa da, baita ere, interferentzia honek ez duela kode-nahasketa edo bateraketarik islatzen jabekuntza-garapenean. Gure ustez, behin gertatutako interferentzia baino ez da, unean uneko interferentzia, alegia.

4.2.1.5. *Argumentuen kasu-markakeraren jabekuntzaren laburpena*

Geure ikerketako haur elebidunaren zein haur gaztelau elebakarren argumentuen kasu-markakeraren jabekuntza-garapenak arakaturik, ondoko zehaztapenak adierazi nahi ditugu:

a- Ikerturiko haur guztiek subjektu iragangaitzak eta subjektu iragankorrak era berean markatzen dituzte. Arauak bezala, ez dituzte morfologikoki bereizten, ez eta hurrenkerarik erabiltzen berauek bereizteko.

b- Objektuak aditz-osteko egonguneak markaturik ekoizten dituzte hasiera batean. Geroago *a* preposizioa ere erabiltzen dute eginkizun honetarako. Haur elebidunaren ekoizpenean % 89,4 objektu agertzen zaizkigu aditz-ostean. Hauez gain, beste % 9,9 alditan objektua aditz-aurrean gauzatzen duen arren, ohiko egongunea da berau, mintzagai-inguruak eta nz-galderak baitira.

c- Subjektuak aditz-ostean gauzatzen badituzte edo isildu egiten badituzte aditz-komunztaduraren bidez aditzean markatzen dituzte beti. Objektuak, ostera, batzuetan baino ez dituzte aditz-morfologian islatzen klitikoan bidez.

d- Argumentu subjektuen eta objektuen kasu-markakera, beraz, akusatiboa da haur guztiengan, nahiz haur elebidunak ikasi duen beste hizkuntzan kasu-markakera ergatiboa izan den.

4.2.2. *Akusatibitatea aditz-flexioan*

4.2.2.1. *Subjektuarekiko komunztadura*

Haur elebidunaren ekoizpenean subjektuarekiko komunztadura derakusaten gaztelaniazko adizkiak, pertsonaz pertsona eta hilez hil sailkaturik, 13. taulan bildu ditugu.

Subjektuarekiko komunztaduraren jabekuntzaren hasiera haurrak 1,10 adina duenean ikus dezakegu, une honetan aurkitu baititugu lehen pertsona-aurkakotasunak singularreko 1. eta 3. pertsonari dagozkien adizkiak gauzatzean. Hemendik aurrera atzizki berak erabiliko ditu adizkietan subjektu iragankorrak (65) zein subjektu iragangaitzak (66) adierazteko.

(65) *quier-o jugar* (M, 2,04)

ahora recoge-mos eso (M, 2,04)

y tien-e coche (M, 2,06)

- (66) no jueg-o (M, 2,04)
 va-mos por ahí (M, 2,04)
 no se muev-e (M, 2,06)

13. Taula. Subjektuen islapena aditz-komuntaduran

Adina	1s -o	2s -as	3s -ø	1pl -amos	2pl -ais	3pl -an
1,09			9			
1,10	3		13			
1,11	7		40	3		
2,00	5	1?	21			
2,01	17		38			
2,02	20		29			1
2,03	29	2	27			1
2,04	35	2	44	6		
2,05	14	2	5	1		
2,06	23	2	38	2		3
2,07	43	7	60	13		3
2,08	13		30	3		2
2,09	21	4	32	4		
2,10	19	5	39	14		3
2,11	45	12	52	10		8
3,00	31	5	33	7		3
guztira	325	42	510	63		24

4.2.2.2. Subjektuei dagozkien klitikoak

Subjektuei dagozkien klitikoak, subjektuarekin koindizatuak alegia, 1,11 adinetik aurrera ikus ditzakegu. Hasieran 3. pertsonari dagokiona baino ez *-se-*, baina 2,01 adinetik aurrera 1. eta 2. pertsonari dagozkienak ere bai *-me*, *te-* (67). Gehienak aditz iragangaitzekin ekoitzi baditu ere, badira aditz iragankorrekin ekoitzirikoak ere (68).

- (67) se ha caí(d)o ot(r)o (M, 1,11)

me monto yo (M, 2,01)

¡que te caes! (M, 2,01)

- (68) me he hecho daño (M, 2,07)

¡que me piso! (M, 2,11)

Badirudi, beraz, subjektuei dagozkien klitikoak ez darabiltzatela subjektu iragangaitzak eta iragankorrak bereizteko.

4.2.2.3. Objektuei dagozkien klitikoak

Objektu zuzenei dagozkien klitikoen erabilpena haur honengan 2,02 adinetik aurrera ikus dezakegu. Lehenago, beharrezkoa zen klitikoak ez du ekoitzi (69). Gauza jakina da Euskal Herriko gaztelanian, mintzatuan behintzat, batetik leismoa gertatzen dela, hots, objektu zuzenei dagozkien *la/lo/las/los* klitikoen ordez zehar objektuei dagozkien *le/es* klitikoak erabiltzen direla zenbait ingurutan (Fernández Ordóñez 1994) eta bestetik objektu zuzenari dagokion klitikoak isildu egin daitekeela (Landa & Franco 1992, Landa 1993).

(69) yo (lo) pon(g)o aquí (M, 2,01)

Objektu zuzenei zein zeharkakoei dagozkien klitikoen ekoizpena 14. taulan bildu dugu.

14. Taula. Objektu zuzenei eta zeharkakoei dagozkien klitikoen ekoizpena

adina	1s me	2s te	3s lo/la	1pl nos	2pl os	3pl los/las
1,11	2		-4 ⁱ			
2,01		1	1/-1			
2,02			7/-1			
2,03	3	4	2/-3			
2,04	5	6	3/-13			
2,05		2	2/-7			
2,06	3	4	5/-6			
2,07	8		17/-7			
2,08	1	3	5			1
2,09	7	1	8/-2			-2
2,10	2	3	5/-3			
2,11	18	3	16/-5			-1
3,00	9	2	11/-4	1		1/-2
guztira	57	29	82/-56	1		2/-5

Taula honetan haur honek ekoitzi dituen klitiko gehienak 3. pertsoneri dagozkienak direla ikus daiteke, nahiz gaztelania estandarren arauak eskatzen dion guztietan halakoak ez dituen gauzatzen (taulan - ikurragaz). Nolanahi ere, 1. eta 2. pertsoneri dagozkien klitikoak era egokian darabiltza batez ere zehar objektuei dagozkienean (70).

(70) ¿me quitas esto? (M, 2,07)

te lo quito (M, 2,08)

Objektu zuzenei dagozkien klitikoak zehatzago arakatzeko asmoz 15. taulan bildu ditugu halakoak. Bertan 3. pertsoneri dagozkien klitikoak baino ez ditugu adierazi, nahiz 1. eta 2. pertsona objektu zuzenei dagozkien klitikoak ere erabiltzen dituen (48a). Taulan, batetik, halako klitikoak gauzatzea eskatzen duten inguruak adierazi ditugu. Bestetik, objektu zuzenei eta zeharkakoei dagozkien

klitiko gauzatuak eta isilduak. Azkenik, objektu zuzenei dagozkien klitikoen orde zehar objektuei dagozkien klitikoak ekoizturiko aldiak.

15. Taula. Hirugarren pertsonari dagozkion klitikoak

adina	guztira	objektu zuzena lo/la/los/las	zehar objektua le/les	zeharra zuzenaren orde z (leismoa)
1,11	-4			
2,01	1/-1	1		
2,02	7/-1	5	2	1?
2,03	2/-3	2		
2,04	3/-13	3		
2,05	2/-7	1	1	1
2,06	5/-6	1	4	3
2,07	17/-7	15	2	1
2,08	6	6		
2,09	8/-4	8		
2,10	5/-3	4	1	
2,11	16/-6	14	2	
3,00	12/-6	12		
guztira	84/-59	72	12	5

Zehar objektuei dagozkien klitikoak egoki ere badarabiltzan arren (71), batzuetan objektu zuzenei dagozkien orde gauzatzen ditu (72).

(71) ponle ésto (M, 2,06)

(72) tu déjale (déjalo) allí (M, 2,06)

sí hay que pararle (pararlo) (M, 2,06)

4.2.2.4. Aditz-komunztadura eta klitikoak elebakarrengan

Arlo hau ez da gaztelaniaren jabekuntzaren ikerketan gehien landu izan den arloa. Hernández Pinak (1984) eta Aguirrek (1995) eskaintzen dizkiguten datuetan eta ikerketetan zera dakusagu: a- subjektuen islapena aditz-komunztaduran gramatikaren garapenaren une batetik aurrera gertatzen dela; b- arlo honetan, komunztaduraren alegia, ez dituztela subjektu iragangaitzak eta iragankorrak bereizten; c- objektuei dagozkien klitikoen erabilera subjektuarekiko aditz-komunztaduraren gauzapenaren ondoren gertatzen dela; d- klitikoen gauzapena eskatzen duten inguruetan, badirela klitikorik gabeko esaldiak (73).

(73) eso (lo) come el gato (AI, 2,04)

Ez dugu ikusi, haur elebakar hauengan, leismoak dakarren ondorioz, zehar objektuei dagozkien klitikoak objektu zuzenei dagozkien klitikoen orde erabiltzea. Alabaina, haur hauek ez dira leismoa ezagutzen duten inguruetaoak.

4.2.2.5. Aditz-morfologiaren jabekuntzaren laburbilketa

Haur elebidunaren gaztelaniazko subjektuen eta objektuen islapena aditz-komunztaduran honela laburbil dezakegu:

- Subjektu iragangaitzak eta subjektu iragankorrak atzizki berak erabilirik islatzen ditu aditz-komunztaduran. Ez ditu, beraz, morfologikoki ezberdintzen aditz-komunztaduran.

- Subjektuak eta objektuak era ezberdinean islatzen ditu aditz-komunztaduran. Subjektuak atzizkien bidez. Objektuak, ordea, adieraztekoan, klitikoaren bidez.

- Klitikoaren arloan leismoa gauzatzen du. Batzuetan objektu bakarrak adierazteko objektu zuzenei dagozkien klitikoak darabiltza. Halere, fenomeno honi buruz zera esan behar dugu:

. Leismoa fenomeno arrunta dela Euskal Herrian eta haur honen inguruan. Ez du, beraz, haurrak sortu.

. Objektu bakarrak zehar objektuei dagozkien morfemen bidez adieraztea euskaraz ere egiten duela batzuetan. Jokabide hau, jakin badakigu, euskaraz helduek ere egin dezaketela hainbat aditzekin.

. Jokabide honek ez duela eragin zuzenik, gaztelaniazko markakera akusatiboan, subjektuen eta objektuen arteko bereizketa morfologikoari eutsi egiten baitio.

- Edozelan ere, subjektuen eta objektuen arteko bereizketa aditz-morfologiaren bidez nabarmena da.

5. Ondorioak

Bildu ditugun hizkuntza bietako haur elebakarren eta haur elebidunaren datuek baietsi egiten dute hasierako hipotesia, hau da, jabekuntza-garapenaren hasiera-hasieratik haur elebidunak gramatika biak ezberdindu egiten dituela, behintzat ergatibitate/akusatibitate fenomenoari dagozkion kontuetan.

Hasieratik, haur elebidunaren hizkuntza bien gramatikaren garapenean ondo-koak baieztatu ditugu:

(i) Euskaraz subjektu iragangaitzak eta iragankorrak ezberdindu egin ditu. Ezberdinketa hau argumentuen markakeran, zein aditz-komunztaduran ikusi ahal izan dugu. Argumentuak kasu-marka ezberdinez gauzatu ditu eta aditz-komunztaduran aurrizkiak eta atzizkiak erabili ditu. Gainera, arlo honetan, haur elebidunarengan elebakarrak garatu duen antzeko prozesua ikusi dugu.

(ii) Gaztelaniaz, ostera, subjektu iragangaitzak eta subjektu iragankorrak era berdinean markatzen ditu argumentuetan eta atzizki berez baliatzen da aditz-komunztaduran berauek islatzeko. Begiratu ahal izan ditugun haur gaztelau elebakarren ekoizpenen arabera, era bertsuan egiten dute hauek ere.

(iii) Gaztelaniaz, hizkuntza akusatiboan, subjektuak eta objektuak ezberdindu egin ditu. Batez ere objektuek betetzen duten egonguneaz baliatu da berauek

bereizteko, aditzaren ostean ekoitzi baititu neurri handi batean. Preposizioaren erabilera ere ikasi duen arren, berau beranduago bildu ahal izan dugu. Subjektuak, aitzitik, egongune askeagoa du, nahiz objektuarekin agertzen denean aditzaren aurrean gauzatzeko joera duen. Aditz-komunztaduran ere bereizketa nabaria da, subjektuak beti atzizkien bidez islatzen baititu eta objektuak, batzuetan, klitikoaren bidez. Arlo honetan ere haur elebarraren moduan jokatu du.

(iv) Hizkuntza ergatiboan, euskaraz, subjektu iragangaitzak eta objektuak modu berean markatu ditu morfologikoki. Hipotesi hau, edozelan ere, erdizka bete da. Egia da subjektu iragangaitzak (ezergatiboak bazterturik) absolutiboaren bidez markatu dituela, baina objektu zuzen guztiak ez ditu kasu beraren bidez markatu. Gehienak bai, % 98,8, hain zuzen. Alabaina, % 1,2 alditan datiboaren bidez markatu ditu objektuak. Aditz-komunztaduran ere jokabide bera burutu du: % 98,5 bider subjektu iragangaitzak adierazteko erabiltzen diren aurrizkiak gauzatu baititu eta % 1,5 bider zehar-objektuak adierazteko erabiltzen diren artizkiak. Argumentuak datiboaz markatzea eta aditz-komunztaduran artizkiez islatzea objektuak, hauek gizakiak eta bizidunak direnean gertatzen da. Horregatik 1. eta 2. pertsona guztiak islatzen ditu artizkien bidez. Baina honek ez du esan gura gizaki eta bizidun objektu guztiak datiboaz markatu dituenik edo artizkiez komunztatu, badira absolutiboz markaturikoak eta aurrizkiez islatutakoak ere. Euskal elebarrak ere objektuen % 97,8 absolutiboaz markatu ditu eta % 2,2 datiboaz; aditz-komunztaduran % 97,5 aldiz aurrizkiak (edo zero, nahi baldin bada) erabili ditu eta % 2,5 aldiz artizkiak. Gauza bera egiten dute, beraz, haur biek.

Aditz-morfologiaren eremuan, haur euskaldun biak baliatu dira orainaldiko adizkiez iraganaldiko adizkiak eraikitzeke. Lehenei iragantasunaren atzizkia erantsiz, *-(e)n*, iraganaldiko adizkiak eraiki dituzte. Horrela, besteak beste, adizki *berri* hauek eraikitzean, orainaldiko adizkiek daukaten egitura ergatiboari eutsi diote (subjektu iragankorrek atzizkien bidez islatzea eta subjektu iragangaitzak eta objektuak aurrizkien edo zeroaren bidez), iraganeko zenbaitek daukaten itxurazko egitura akusatiboa hautsiz (subjektu iragankorrek eta subjektu iragangaitzak –eta batzuetan baita objektuak ere– aurrizkien bidez islatzea). Ergatibitateari eustea ez da izango, apika, haur hauek jokabide honetara bultzatu dituen arrazoi bakarra, baina baliteke arrazoiatariko bat izatea. Bide batez, azpimarraturik geratu da haur bi hauek sistema ergatiboaz jabetu direla eta berau sistema akusatibotik bereizi dutela.

Objektu zuzenekin euskaraz markakera bikoitza gauzatzean, argumentuetan absolutiboa eta datiboa erabilirik, aditz-komunztaduran aurrizkiak eta artizkiak gauzaturik, eta gaztelaniaz zehar objektuen klitikoak objektu zuzenen klitikoaren ordean ekoiztean, ez dute gure hipotesi nagusia hondatzen. Bereizketa hau subjektu iragangaitzak, subjektu iragankorrek eta objektuak ezberdintzera baitoa, eta inola ere ez subjektu iragangaitzak eta subjektu iragankorrek morfologikoki era berean markatzera. Baliteke, gainera, bilakabide honek objektuak gizakitasunaren edo bizitasunaren arabera bereiztera eramatea, hots bizidun eta bizigabeetan. Fenomeno hau zehatz aztertzeke, guzti honez gain, euskaldunen eta Euskal Herrian bizi diren gaztelania-hiztunen jokaera aztertu beharko litzateke, gauza jakina baita leismoaren zera.

Jabekuntza elebidunaren garapenean gramatika nahasketa edo bateraketa aldia zeharkatzea behar-beharrezko dela esaten duen hipotesia dela eta, ez dugu beroni eusten dion inolako daturik edo jokabiderik aurkitu:

(i) Inoiz, beste hizkuntzaren arabera eraikitako ustezko ekoizpenen bat aurkitu dugunean hizkuntza batean, esate baterako gaztelaniaz objektua aditzaren aurrean gauzatu duenean elebidunak ohiko ez den egongune baten (OA a SOA hurrenkeretan), erabilera hori oso murrizta izan da (goiko adibidean % 1era ere ez baitira heltzen halakoak), behin baino ez ekoitzia. Gainera, halako batzuk, OA hurrenkerakoa esaterako, haur elebakar gaztelaniadunek ere erabili dituzte beren jabekuntza garapenean.

(ii) Euskararen jabekuntzaren hasieratik bildu ditugu, itxuraz, absolutiboaz markaturiko subjektu iragankorrek haur elebidunaren zein elebakararen ekoizpenetan. Aldi batean, gramatikaren jabekuntzaren hasieran alegia, ugariak diren arren (elebidunarengan % 38 2,02tik 2,07ra eta elebakararengan % 28 2,00tik 2,04ra), ez dute nahasketa edo bateraketa islatzen, aldi berean ergatiboz eraikitako egitura zuzenak ere badirelako. Halako ekoizpenak, gure ustez, ez daude absolutiboaz markatuak, zero-markatuak baino, kasu-markarik gabeak baitira. Hizkuntza egituren garapen mailakatuaren ondorioak dira, ez balizko nahasketarenak edo bateraketarenak.

Guk aztertu ditugun haur elebidunaren eta elebakarren datuek, beraz, gramatika-kode bien bereizketa frogatzen dute, arakatu ditugun egituretan behintzat, hots, akusatibitate/ergatibitate markakeretan.

Bibliografia

- Aguirre, C., (1995): *La adquisición de las categorías gramaticales del español*. Doktorego tesia, Universidad Autónoma de Madrid.
- Barreña, A., (1994): "Sobre la adquisición de la categoría funcional COMP por niños vascos", in J. Meisel (arg.), *La adquisición del vasco y del español en niños bilingües*, Vervuert - Iberoamericana, Frankfurt-Main, 231-284.
- , (1995): *Gramatikaren jabekuntza-garapena eta haur euskaldunak*. Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitarapen Zerbitzua, Bilbo.
- , (1997): "Desarrollo diferenciado de sistemas gramaticales en un niño vasco-español bilingüe", in W. R. Glass & A. T. Pérez-Leroux (arg.), *Contemporary Perspectives on the Acquisition of Spanish*, Cascadilla Press, Somerville, 55-74.
- Blake, B. J., (1979): "Degrees of Ergativity in Australia", in F. Plank (arg.), *Ergativity. Towards a Theory of Grammatical Relations*, Academic Press, London, 291-305.
- Boeder, W., (1979): "Ergative Syntax and Morphology in Language Change: The South Caucasian Languages", in F. Plank (arg.), *Ergativity. Towards a Theory of Grammatical Relations*, Academic Press, London, 435-480.
- Bowerman, M., (1973): *Early Syntactic Development: A Cross-linguistic Study with Special Reference to Finnish*, Cambridge University Press, Cambridge.
- Brown, R., (1973): *A first language. The early stages*, Harvard University Press, Cambridge.
- De Houwer, A., (1987): *Two at a time: An Exploration of How Children Acquire Two Languages from Birth*, Ph. D. Dissertation, Free University of Brussels.

- , (1991): *The Acquisition of Two Languages from Birth: a Case Study*, Cambridge University Press. Cambridge.
- Demonte, V., (1989): *Teoría Sintáctica: De Las Estructuras a La Rección*, Ed. Síntesis, Madrid.
- Dixon, R. M. W., (1994): *Ergativity*, Cambridge University Press, Cambridge.
- Eguzkitza, A. (1987): *Topics in the Syntax of Basque and Romance*, Indiana University Linguistic Club, Indiana.
- Elordui, A., (1995): *Hizkuntz heriotza eta aldaketa morfologikoa: Hegomendebaldeko bizkaieraren kasua*, Doktorego tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Elosegi, K., (1996): *Kasu eta preposizioen jabekuntza-garapena haur elebidun batengan*, Doktorego Tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Ezeizabarrena, M. J., (1996): *Adquisición de la morfología verbal en euskera y castellano por niños bilingües*, Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitarapen Zerbitzua.
- Fernández Lagunilla, M. & Anula Rebollo, A., (1995): *Sintaxis y Cognición. Introducción al conocimiento, el procesamiento y los déficits sintácticos*, Síntesis, Madrid.
- Fernández Ordóñez, I., (1994): "Isoglosas internas del castellano. El sistema referencial del pronombre átono de tercera persona", *Revista de Filología Española* LXXIV, 71-125.
- Franco, J., (1994): "The Morphological, Syntactic and Semantic Agreement Status of Spanish Object Clitics", *ASJU -Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo-* XXVIII-3, 707-789.
- Goenaga, P., (1978): *Gramatika bideetan*, Erein, Donostia.
- Hernández Pina, F., (1984): *Teorías psicosociolingüísticas y su aplicación al español como lengua materna*, Siglo XXI, Madrid.
- Hernanz, M. L. & Brucart, J. M., (1987): *La sintaxis. 1. Principios teóricos. La oración simple*, Editorial Crítica, Barcelona.
- Idiazabal, I., (1991): "Haur txikien hizkuntz heldutasuna neurtzeko baliapide bat: esaldien batatz besteko luzera (EBBL) edo 'MLU'", in J. L. Lakarra (arg.), *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum*, Gipuzkoako Foru Diputazioa - ASJU gehigarria, Donostia, 1289-1295.
- , (1995): "First Stages in the Acquisition of Noun Phrase Determiners by a Basque-Spanish Bilingual Child", in C. Silva-Corvalan (arg.), *Spanish in Bilingual Context*, Georgetown University Press, Washington, 260-278.
- Kliffer, M. D., (1995): "El 'a' personal, la kinesia y la individuación", in C. Pensado (arg.), *El complemento directo preposicional*, Visor, Madrid, 93-111.
- Lafitte, P., (1944): *Grammaire Basque (Navarro-Labourdin littéraire)*, Baiona.
- Laca, B., (1995): "Sobre el uso del acusativo preposicional en español", in C. Pensado (arg.), *El complemento directo preposicional*, Visor, Madrid, 61-91.
- Laka, I., (1988): "Configurations Head in Inflectional Morphology: The Structure of the Inflected Forms in Basque", *ASJU* XXII-2, 343-365.
- Landa, A. & Franco, J., (1992): "Objetos nulos en el castellano del País Vasco: dos status para dos interpretaciones", *ASJU* XXVI, 777-792.
- Landa, A., (1993): "Los objetos nulos determinados del español del País Vasco", *Lingüística (ALFAL)* 5, 131-146.
- Larrañaga, P., (1994): "La evolución del caso en euskera y castellano", in J. Meisel (arg.), *La adquisición del vasco y del español en niños bilingües*, Vervuert - Iberoamericana, Frankfurt-Main, 113-150.
- Levin, B. C., (1983): *On the Nature of Ergativity*, PhD Dissertation, Massachusetts Institute of Technology.
- López Ornat, S., (1992): "Sobre la gramaticalización. Prototipos para la adquisición de la concordancia verbo-sujeto: datos de lengua española en niños de 1,6 a 3,6", *Cognitiva* 4 (1), 49-74.

- López Ornat, S., (1994): *La adquisición de la lengua española*, Siglo XXI, Madrid.
- , (1996): “Mecanismos de adquisición morfosintáctica”, in M. Pérez Pereira (arg.), *Estudios sobre la adquisición del castellano, catalán, euskera (sic) y gallego*, Universidade de Santiago de Compostela, Santiago de Compostela, 175-193.
- Meisel, J., (1989): “Early Differentiation of languages in bilingual children”, in K. Hyltenstan & L. Obler (arg.), *Bilingualism across the Lifespan: Aspects of Acquisition, Maturity and Loss*, Cambridge U. P., Cambridge, 13-40.
- , (1994): “La adquisición de la negación en euskera y castellano”, in Meisel J. (arg.), *La adquisición del vasco y del castellano en niños bilingües*, Iberoamericana-Vervuert, Frankfurt-Main, 151-180.
- Meisel, J. & Mahlau A., (1988): “La adquisición simultánea de dos primeras lenguas. Discusión general e implicaciones para el estudio del bilingüismo en Euskadi”, in *Euskara Biltzarrea - Congreso de la Lengua Vasca III*, Eusko Jaurilaritzaren Argitarapen Zerbitzua, Donostia, 91-120.
- Ortiz de Urbina, J., (1988): *Some Parameters in the Grammar of Basque*, Dordrecht, Foris.
- Oyharçabal, B., (1992): “Structural Case and Inherent Case Marking: Ergaccusativity in Basque”, in J. A. Lakarra & J. Ortiz de Urbina (arg.), *Syntactic Theory and Basque Syntax*, Gipuzkoako Foru Diputazioa - ASJU gehigarria, Donostia, 309-342.
- Padilla, A. & Liebman, E. S., (1975): “Language acquisition in the bilingual child”, *Bilingual Review* 2, 34-55.
- Padilla, A. M. & Lindholm, K., (1978): “Language mixing in bilingual children”, *Journal of Child Language* 5, 327-335.
- Pensado, C., (1995): “El complemento directo preposicional. Estado de la cuestión y bibliografía comentada”, in C. Pensado (arg.), *El complemento directo preposicional*, Visor, Madrid, 11-59.
- Plank, F., (1979): “Ergativity, Syntactic Typology and Universal Grammar: Some past and present viewpoints”, in F. Plank (arg.): *Ergativity. Towards a Theory of Grammatical Relations*, Academic Press, London, 3-36.
- , (ed) (1979): *Ergativity. Towards a Theory of Grammatical Relations*, Academic Press, London.
- Redlinger, W. & Park, T., (1980): “Language mixing in young bilinguals. Journal of Child”, *Language* 7, 337-352.
- Siguan, M., Colomina, R. & Vila, I., (1990): *Metodología para el estudio del lenguaje infantil*, Abril Editorial, Barcelona.
- Slobin, D., (ed) (1985): *The Cross-linguistic Study of Language Acquisition. Volume I: The Data. Volume II: Theoretical Issues*, Erlbaum.
- Suñer, M., (1988): “The role of agreement in clitic-doubled constructions”, *Natural Language and Linguistic Theory* 6, 391-434.
- Taeschner, T., (1983): *The Sun is Feminine: A Study of Language Acquisition in Bilingual Children*, Springer-Verlag, Berlin.
- Trask, R. L., (1981): “Basque Verbal Morphology”, *Iker* 1, Euskaltzaindia, Bilbo, 285-304.
- Txillardegi, (1974): *Euskara batua zertan den*, Jakin, Oñati.
- , (1980): *Euskal Gramatika*, Erein, Donostia.
- Vila, I. & Cortés, M., (1991): “Aspectos relativos al desarrollo lexical y morfosintáctico de los bilingües familiares”, in I. Idiazabal (arg.), *Adquisición del lenguaje en niños bilingües y monolingües - Hizkuntz Jabekuntza Haur Elebidun eta Elebakarretan*, Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitarapen Zerbitzua, Donostia, 109-127.
- Volterra, V. & Taeschner, T. (1978): “The acquisition of language by bilingual children”, *Journal of Child Language* 5, 2, 311-326.